

"Harritu egin naiz nire lehenengo ipuina liburuan sartuta ikusita"

Sustrai sahararrak dituen Charif Aomar Omar gaztearen ipuin batean topatu zuten 'Sator hegalariak: lurretako berbeta eta literatura' liburuari izena emateko ideia; Charif Frantzian bizi da gaur egun, gurasoekin / 2-3



"GURE LANA IKUSGARRIAGO EGITEKO ESPAZIOA IZANGO DA TXUPINA"

Elorrioko pregoia irakurriko dutenatariko kide bi dira Grettel Antonia Díez Gutiérrez eta Xiomara del Carmen Pérez; etxeko lanetan eta zaintza lanetan dabilta / 16-17



Gazako genozidioa salatzeako protesta ugari, gaur, Durangaldeko herrietan / 4

Frankismoaren biktimak gogoratuko dituzte Berrizen, Oroimenaren Bideagaz / 8



ELORRIOKO JAIK / 13



IZURTZAKO JAIK / 22



Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Markel Onaindia IURRETA

Iurretako idatzizko eta ahozko ondarea batzeko asmoz, *Sator hegalaria: Iurretako berbete eta literatura* (Pamiela) liburua kaleratu zuten iaz, herriko hainbat lagunerekin auzolanari eskerrak. Izenburua irakurrita, sator hegalaria bitxikeria nondik ote datorren galdetuko du hainbatek, eta horren erantzuna argitzeko haritik tira egin beharko da, espero bako lekuetara heltzeko. Izan ere, istorioak berak ere ipuin bat dirudi.

Ahmed Aomar Mohamed Salem eta Fatma Omar Ahmed Salem sahararrek errefuxiatuen kanpamentuetatik irten eta Europa migratzea erabaki zuten 2001ean, hango salbuespen egorak eta ondoriozko bizimodu gaitzak bultzatuta. Fatmak ekonomia arloko master bat ikasi zuen Kuban, eta, diploma hori eskuetan, Europan lana bilatzeko saiakerari ekin zion. Horrela, bidaian aurrera, 2005ean Iurretara heldu zen bikotea. Hegalak aldi baterako bildu, lur honetan habia egin, eta 2007an euren semea jaio zen, erreportaje honetako protagonista: Charif Aomar Omar.

Maiztegi herri eskolan Lehen Hezkuntzako bigarren mailan ikasten zegoela, irakasleak ipuin bat idatzeko ariketa ipini zien Charifi eta gelakideei. Berben eta esaldien jolas horretan, umeak sator baten abentura imajinatu zuten, baina ez zen edozelako satorra; lurpean bizi arren, hegan egitea amesten zuten. Zeinen harrigarria haurren irudimena, ezinezkoa posible egiten duen unibertso magiko hori. Bada, Charifek Iurretako literatura lehiaketa irabazi zuen ipuinagaz, eta saritu guztiekin batera liburuxka batean argitaratu zuten udalak eta bibliotekak. Handik ia hamar urtera, herriko ondare literarioa arakatzen zebilen taldeak ipuina irakurri eta hasieran aipaturiko bilduman txertatzea ebatzi zuten. Ez hori bakarrik, liburuaren tituluan ere sator hegalaria erreferentzia egin zioten.

Ipuina idatzi eta sariketa irabazi zueneko garaia oroitu du Charifek telefonoaren beste aldetik. “Asier izeneko irakasle bat gogoratzen dut, uste dut istorioa beragaz idatzi nuela. Amak lehiaketa irabazi nuela esan zidan momentua

Sator hegalaria baten istorioa, Iurretatik Sahararainoko abenturan

Sustrai sahararrak dituen Charif Aomar Omar gaztearen ipuin batean topatu zuten ‘Sator hegalaria: Iurretako berbete eta literatura’ liburuari izena emateko ideia; gaur egun Frantzia bizi da Charif, gurasoekin batera



Charif Aomar Omar.

gogoan dut, baita alkateagaz saria hartzekoa ere. Ez nuen espero. Ez dakit istorioa zergaitik idatzi nuen, mezurik hedatu gura nuen ala ez. Esango nuke jolas bat izan zela gehienbat”, kontatu du dagoneko 18 urte dituen mutilak. Orain, harriduraz hartu du bere ipuina liburu kolektiboan sartzeko erabakia. “Saria irabaztea baino gutxiago espero nuen ipuina liburu batean argitaratzea. Egiazki, oso pozik nago, nire lehenengo istorioa baita!”, aitortu du.

Euskal idazleen ezina eta ilusioa

Ipuineko satorrak hegan egiteko desioa du, hori lortzeko hainbat animalari laguntza eskatzen dielarik. Pamielak argitaraturiko liburua Joseba Sarrionandiak eta Xabier Bovedak editatu zuten, eta Garai-zarkoak metafora poetiko bat eginez esplikatu du Charifek istorioa atal batean barneratzeko hautua: “Hegan egin gura zuen satorraren ipuina aukuratu genuen, bere sinpletasunean, gure liburuan atalik atal azaltzen denaren laburpen eta sinbolo modukoa delako. Ikaragarria izan da euskaraz idatzi gura izan duen jendearen zultatik atera ezina, eta, hala ere, hegan egiteko ilusioa”. Beraz, liburua euskaldunon erresilientziaren kontakizun bat izan daiteke. “Azken berrehun urteetan Iurretan euskaraz idatzi denaren bilduma egin gura genuen liburuan. Euskaldunok bizi izan dugun kolonizazio politiko eta kulturala konplexua da eta ez da erraza kontatzen”, esan du Sarrionandiak. Horrez aparte, tituluan erreferentzia

egiteak badu zerikusia Iurretaren izaeragaz eta gaiekin. “Titulurako aukeratu genuen, gainera, ume migrante batek idatzia zelako. Iurretarren gauzak ez dira betiko iurretarrenak bakarrik. Iurretako gauzak unibertsalak dira”, uste du Sarrionandiak.

Atzerrian, baina sustraiak ahaztu barik

Euskaldunek jasandako kolonizazioa bezala, Marokok Mendebaldeko Saharan ezarritako okupazioaren eragina ere ez da erraza kontatzen, saiakera egin arren. 1975ean hasitako inbasiotik ihesi, milaka saharar (173.000, NBERen esanetan) Tindufeko (Aljeria) kanpamentuetan bizi dira, munduaren ahanzturaren erruz betikotu egin diren baldintza behin-behinekoetan. Elikagaien karabana solidarioak eta umeen udako harrerak gogorarazten digute badela gatazka bat, badela herri bat bere izateari eusten. Charifek familiak eta gainerako saharar guztiek balentria ia sinestezina egin dute, ipuineko sator hegalaria antzera, egonarriz bizirauten. “Saharan bizitza oso konplikatu da, gerragaitik eta kanpamentuetako bizimoduarengaitik. Gurasoek honaino hegan egin dute, eta, zailtasunak gorabehera, azkenean eurek ere lortu dute gura zutena, satorrak

**J. SARRIONANDIA:
"IPUIN HAU GURE
LIBURUAN AZALTZEN
DENAREN SINBOLO
MODUKO BAT DA"**

bezala”, dio Charifek. Hala ere, nahiz eta atzerrian bizi, sustraiak ez dituzte ahazten, eta semeari bere jatorria barneratu diote. “Ni iurretarra sentitzen naiz, eta sahararra ere bai. Nire gurasoen heziketa izan da, Iurretan jaio arren nire sustraiak zeintzuk diren, gurasoak nondik datozen, aitona-amonak non jaio ziren kontatuz. Hango familiagaz hartu-emana dugu gainera”, esan du gazteak.

Medikuntza ikasten, kanpamentuetan laguntzeko
Charifek sator hegalaria ipui-na idatzi eta gutxira, 2015ean, Iurretako habia atzean utzi eta hegaldia jarraitzea erabaki zuten gurasoek, Frantziako Castelnau D’Auzan herrira joateko. Hantxe bizi dira gaur egun. Itoizen as-

paldiko kanta surrealista gurera ekarrita, orain Iurretan mutil bat falta da, ez dago bere etxeko leihoan satorrei edo txantxan-gorriari begira. Lantzean behin etortzen da, senide eta lagunak bisitatzerara. Charifek penaz aitortu du euskara galtzen dabilela, txikitan ondo egiten zuen arren. Idazketa ere ez du lantzen. “Istorioak alde batera utzi ditut. Orain zientziatiko pertsona naiz, matematikak, fisika... horiekin nabil. Baina gustatzen zait literatura irakurtzea, eta gaur egun autore frantziarrak irakurtzen nabil batez ere”, argitu du gazteak. Unibertsitatean medikuntza ikasten hasi da, zerumugan sahararrak zaindu eta osatzeko nahia bistaritzen duelarik. “Nire misioa jendeari laguntzea da, bai Europan bai nire herrialdean. Kanpamentuetan bizi den jendeari laguntzeko ahalegina egin gura dut”, nabarmendu du. Era boluntarioan laguntzen duten elkarten bitartez joan gura luke hara. Hala bada, etorkizunean ere hegal egiten jarraituko du satorrak, Iurretatik Sahararaino, ezinezkoa dirudiena posible bihurtu guran.

C. AOMAR: "NIRE MISIOA JENDEARI LAGUNTZEA DA, BAI EUROPAN BAI NIRE HERRIALDEAN"

Bilduma anitz bat, herriko pasarteak kontatzeko

Kronikak, ipuinak, olerkiak, komikiak, gutunak, kankak, bertsoak, esaerak... estilo ugaritako testu eta transkripzioak biltzen ditu *Sator hegalaria: Iurretako berbeta eta literatura* (Pamiela) liburuak. Iaz argitaratu zen, zenbait urtetako lanaren ondoren, eta Durangoko Azokan aurkeztu zuten jendaurrean. Herrian bertan ere ekitaldi kulturalak egin dituzte azken hileotan, herriarrei liburuko pasarteen berri emateko. Iurretako Udalak diruz lagundu zuen argitalpena. Charif Aomar Omarren ipuinak zarratzen du liburua, eta aurretik beste hainbat egileren lanak ageri dira. Charifena ez da haurrek idatzitako testu bakarra; izan ere, Maiztegi eskolako hainbat ikaslek Sarrionandiagaz batera eginiko ariketa baten emaitza ere irakurri daiteke kapitulu batean.



Joseba Sarrionandia eta Xabier Boveda, aurkezpenean. DURANGOKO AZOKA

Iurretako proiektuan legez, Durangaldeko herrietan beste hainbat talde dabilta ondare literarioa jasotzen,

eta aurrerago emango dute ikerketen berri. Beraz, gainerakoen arbola bereko adar bat da Iurretakoa.



BEZALI ZURE ARGAZKIA 688 635 041 ZENBAKIRA EDO WEBGUNEARA

Jabi Vidal Alazna Urien



ANTOLATZAILEA **anboto**



2 KATEGORIA
4 SARI

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
EPAIMAIAREN SARIA **Smartbox** bat
PUBLIKOAREN SARIA **Garaiko** landetxean egonaldi bat
DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA
EPAIMAIAREN SARIA **Databostek** emandako aurikularrak
PUBLIKOAREN SARIA **Euskal Produktuz** osatutako otzara

LAGUNTZAILEAK



Saharako umeek amaitu dute udako egonaldia

40 neska-mutikok igaro dute uda gure artean. Orain, euren familiekin daude berriro, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan. Elkartek egonaldiaren balantze positiboa egin dute. Aisialdia eskaintzeaz gainera, denei mediku probak egin dizkiete

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Shukran eta "laster arte" esanda agurtu dira. Uztailaren erdialdean, Saharako 40 neska-mutiko heldu ziren eskualdera, uda gure artean pasatzera. Horietatik 15 Zaldibarren egon dira, Hamadako Izarrak elkarreagaz. Garazi Etxebarría elkarteko kideak egonaldiaren balorazio "oso positiboa" egin du. Bisa arazoak zirela eta, umeak aste batzuetako atzerapenagaz ailegatu ziren, baina, "zorionez, Usansoloko ospitaleko kontrol saio guztiak" eginda joan dira. Umeak "penaz" joan direla esan du Etxebarría, "kariñoa" hartu dutelako, baina "pozik" ere joan dira, "euren familietara bueltatzeko gogoia ere bazutelako". Elorrioko familietan babes hartu duten hiru neska-mutikoak ere primeran ibili direla esan du Lajwad elkarteko Maialen Bernasek: "Oporretan ibili dira harrera familiekin. Barrakez, igerilekuez, hondartzaz, gozatu dute". Bernasek ere agurraren "gazi-gozoa"



Zaldibarren aterpe hartu duten umeak, herriko rokodromoan. HAMADAKO IZARRAK

aipatu du, ohi baino beranduago etorrita "uda laburtzua" izan dutelako. Beste 25 ume Río de Orogaz egon dira eskualdean. Horietatik 12k Izurtzako aterpetxean pasatu dute uda. Mikel Del Arco ardura-dunak "oso pozik" daudela azaldu

du, "inoizko ume kopururik handiena" aterpetu dutelako. "Ekintza ugari egin dugu, umeak primeran egokitu dira, eta, mediku hitzorduek arrapaladan aldatu behar izan ditugun arren, denek jaso dute osasun arreta", esan du.



Palestinaren aldeko elkarretaratze bat, Durangon.

Palestinako genozidioa salatzen deia Durangaldean

Gernika-Palestina dinamika deituta, hainbat herritan elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, barikua

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Israelgo armada Gazan egiten dabilen sarraskiaren aurrean, Gernika-Palestina dinamika mobilizatzen deitu du. Mobilizazio guztiak, gaur izango dira, barikua, 19:00etan. Durangon elkarretaratze zaratsua egingo dute, Andra Marian. Elorriko giza katea egingo dute, Aldatsekua eta herriko plaza lotuta. Iurretan ibilaldi zaratsua egingo dute, Montoitik Dantzari plazara. Atxondon ere antzera batean mobilizatuko dira: plazatik hasi eta Iru-bideko biribilgunera joango dira martxan. Zaldibarren, Berrizen,

Mallabian, Mañarian eta Zornotzan udaletxeen aurrean batuko dira. Orain egun gutxi, Global Sumud ontzidia Bartzelonako portutik irten zen, Gazara laguntza humanitarioa helarazteko. 22 ontzitan 44 herrialdeko ordezkariak irten ziren; tartean, 4 euskal herritar. Israelgo armadak adierazi duenez, "terrorista" lege tratatuko dituzte aktibistok. Bestalde, Mugarik Gabeko Kazetariak erakundeak protesta deitu du, atzerriko prentsak Gazan libreki lan egin dezan eskatzeko. ANBO-Toko lantaldeak bat egin zuen deialdiagaz, astelehenean.

Igerilekuak handitzeko aukera kontuan hartzea eskatu dute

Tabirako igerilekuen proiektuan "aurreikuspenez" jokatzeko eskatu dio Durangoko EH Bilduk udal gobernu taldeari

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak Tabirako kirol instalazioak berrikuntza eta, "epe luzeko begirada eta aurreikuspena" eskatu ditu EH Bilduk. Koalizioaren esanetan, gobernu taldeak hasitako proiektua "aurreikuspen eta plan handiegirik barik" gauzatuko da, eta, horren eraginez, etorkizuneko igerilekuak zabalduko balira, "mugak" egongo lirakeela uste dute. Azpimarratu dutenez, igerilekuok "jende lepo" egoten dira egun beroetan, eta aldaketa klimatikoaren era-

ginak geroago eta nabarmenagoak direla ikusita instalazioak "babesleku klimatiko" izan daitezkeela ohartarazi dute. Horregaitik guztiagaitik, "igerilekuak handitzea kontuan hartzea eta aldagelak behar den moduan birkokatzea" eskatu dio koalizioak gobernu taldeari, "eskuragarri dagoen zoria ez errezeko".

Durangoko Udala Tabirako kirolgunea eraldatzen hasiko da hile honetan. 5 milioi euroko inbertsioa egingo du erabilera anitzeko kantxa ipini, aldagelak



Igerilekuak eraldatzeko proiektuaren infografia. DURANGOKO UDALA

berrikuntza eta taberna-kafetegia atontzeko. Kirolgunea 2027an egongo da guztiz berrikuntza, aurreikuspenen arabera. Hiru faseetan egingo dituzte lanak; lehenengoan, irailtik urte amaierara artekoan, txarto dauden

eraikinak bota eta eraldaketa zentroalekualdatuko dute. Proiektua aurkezterakoan, Mireia Elkoroiribe alkateak esan zuen Tabirako kirol instalazioak berrikuntza "legealdiko proiekturik garrantzitsuenetarikoa" dela.

Migranteentzako euskara ikastaroak prest Durangon

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak euskararen trebatzen hasteko ikastaroa antolatu du udalerrira etorri berri diren herritarrentzat (AISA ikastaroa). Bigarren antolatu dute. Programak 60 orduko iraupena izango du eta astean bitan eskainiko dute, urritik aurrera, ordu biko klaseetan. Zerbitzua debalde eskainiko dute. Udal iturriek gogoratu dutenez, lehenengo programa martxoan ekinen aurrera. Orduan, 11 lagunek jaso zituzten klaseak Udal Euskaltegian. Ikastaro berrian parte hartu gura dutenek 946 030 016 edo 630 474 332 telefonora deitu dezakete. Izen emateak irailaren 26ra arte egin daitezke.

Suizidioaren narratiba aldatzeko ekitaldiak Durangon

Suizidioak inposatzen duen "tabua" apurtzera deitu dute. "Funtsezkotzat" jo dute gaiaz berba egitea

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Udalak bat egin du irailaren 10agaz, Suizidioa Prebenitzeko Nazioarteko Egunagaz, eta hainbat ekintza antolatu du gaia gizarteratzeko eta herritarrek prebentzioan sentsibilizatzeko. Aidatu elkarte Monika Salgueiroren esanetan, prebentzioan eragiteko "funtsezkoa" da gaiari buruz berba egitea: "Gure keinu txiki bakoitza lagungarri izan daiteke behea jota dagoenari laguntzeko, hark laguntza eskatzeko". Gainera, honako errealitate honen berri ere eman du: egun

birik behin herritar batek bere buruaz beste egiten du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. "Hori guzti hori beldurrez, ezezagutzaz eta estigmatizazio bizi dugu, baina ezinbestekoa da gaia gizarteratzen hastea", gaineratu du Salgueiok.

Hori guzti hori dela eta, irailean zehar hainbat ekitaldi antolatu dute. Hilaren 23an, *Bizitzeko lagundu: adinekoen suizidioaren prebentzioa* berbaldea egongo da Astarloako adinekoen egoitzan (18:15). 27an, zineforuma egingo dute Zugazan, Jon Sistiagaren *Tabú: y final, la muerte... fuga*



Udal ordezkariak eta suizidioaren prebentziorako adituak, eguazteneko agerraldian.

filmagaz (11:00). Bizenta Mogel Bibliotekak gaiari buruzko mahai tematikoa ipiniko du liburutegian, eta ordezkari politikoek adierazpen instituzionala irakurriko dute hilaren 10ean, Otamotzenan. Otamotzenan bertan, Durango

kakorratz taldeek hango eserleku bat hori kolorez jantziko dute, horia delako suizidioaren prebentziorako kolorea. Egitaraua "gizarte enpatiko eta zaintzaileagoa sortzeko ekarpena", izan dadin gura du Jesica Ruiz zinegotziak.

Durango Unicefen Haurren Hiri Lagunen sarera batu da

E.H. DURANGO

Durango Udalak eta Euskadiko Unicefek lankidetzaz hitzarmena sinatu dute umeen eta nerabeen eskubideak babesteko politika aktiboak garatzeko. Mireia Elkoroiribe Durango alkateak eta Joseba Madariaga Euskadiko Unicefen batzordeko presidentek sinatu zuten, uztailan. Lankidetzak "gizarte inklusiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzen lagunduko duela azpimarratu zuen Elkoroiribek. Madariagak esan zuenez, "Durango Haurren Hiri Laguna aitortzea "bultzada" izango da "haurrek eta nerabeek herriko eragile aktibo lez dituzten eskubideak baliatzeko".

Durango kaleetako argiteria goitik behera berriztuko dute

Udalak "% 75" aurreztu gura du energiaren kontsumoa. Herriaren Eskubideak dio "segurtasun eza" handituko dela

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Udalak 5.697.120 euroko kontratua esleitu dio zerbitzu energetikoen enpresa bati, herriko kaleetako argiteria osoa goitik behera aldatu eta haren mantentze-lanez arduratzeko. Jarduketa horri eskerrak, energia kontsumoa "% 75" aurreztuko dela kalkulatu du udalak. Proposamenak EAjren, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin aurrera egin zuen, uztailako osoko bilkuran. Kontratuak hamar urteko iraupena du. Lehenengo urteetan, argiteria-koadro



Farolak, Madalenan. DURANGOKO UDALA

guztiak egokituko dituzte, egungo argiak kontsumo txikiko LED teknologiaz ordezkatzeko. 3.062 argi-puntu berriztuko dituzte guztira. Bestalde, 300 zutabe ordezkatuko dituzte. Mireia Elkoroiribe alkatearen berbetan, ekintza "beharrezkoa eta aspaldiko nahia" da, "espazio publikoaren kalitatea, segurtasuna eta durangarren ongizatea hobetzeko, etorkizunerako apustua".

Herriaren Eskubidearen iritziz, kontratu esleitu berriak "areagotu" egingo du "segurtasun falta", argiztapen berriak gaueko ikus eremua "nabarmen" murriztuko duelakoan. "23:00etatik aurrera, argiztapena % 50era ez jaitea" eskatu dute, horrek "puntu beltzak" eragingo dituela iritzita. Oposizioari eta herritarrei "ez entzutea" leporatu diote gobernu taldeari eta PPri.

Hobekuntza lanak egiten dabilta Zaldibarko kiroldegian

Berogailu-galdara eskolako biomasara konektatzea eta teiltatua berriztea dira jarduketarik esanguratsuenak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Udako oporraldia aprobetxatuta, Zaldibarko Udala hainbat hobekuntza egiten dabil herriko kiroldegian. Batetik, aldagelako berogailu-galdara eskolako biomasara konektatzen dabilta. Bestalde, teiltatua konpontzen hasi dira. Azkenik, kiroldegiko kantxa pintatuko dute. Udalak bere sareetan jakinarazi duenez, inbertsio osoa 123.790 eurokoa da. Bizkaiko Foru Aldundiak 26.881 euroko ekarpena egin du obrak diruz laguntzeko.



Kiroldegia obretan. ZALDIBARKO UDALA

GOI-MAILA:

- Bioteknologia - Elikagailen industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Instalazio elektriko eta automatizazio teknika
- Soldadura eta galdaragintza

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

- Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

LHEZIKETA

eman izena ▶ leartik.eus

AZKEN PLAZAK

lea artibai

MARKINA-XEMEIN

Instagram Facebook YouTube Twitter

Paella lehiaketa, azoka eta musika Muntsaratzen

Gaurtik domekara bitartean, Abadiñoko Muntsaratz auzoan jaiak ospatuko dituzte. Hiru egunez, ekintza ugari egongo da adin eta gustu guztietako herritarrentzat. Auzotarrentzat zita preziatua izaten den paella txapelketa bihar izango da

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Udako oporren amaieragaz bate-ra hemen daude, beste urte batez, Abadiñoko Muntsaratz auzoko jaiak. Hiru egunez jai giroa izango da nagusi bertan. Gaur eman-go diete hasiera festei, irailak 5, 19:00etan, Donien Atxa jasota eta Talde Batuak dantza taldearen saioagaz. Horren ondoren, ugasio txapelketa egongo da, 19:30ean, eta 19:45ean bosgarren Lokaletik AT Fest hasiko da. Aurten, talde hauek igoko dira Muntsaratzeko oholtzara: Korroxion, Lionels, Sugoi, Alerta eta Orihen. 20:00etan Makro disko-jai Sound 4 egongo da eta 20:30etik aurrera Eusko Labeldun hanburgesak jateko aukera izango dute Muntsaratzera bertaratzeko direnek.

Zapaturako egun osoko egitaraua antolatu dute. Puzgarriekin eta umeentzako tailerrekin emango diote hasiera egunari. 13:00etan herri kirolen txanda izango da. Bertan, Izadi Agirrek, Haritz Aranguren, Malen Barrenetxeak



Paella txapelketako artxiboko irudia.

eta Mikel Agirrek erakustaldia egingo dute. Ondoren, auzotarrentzat zitarik preziatuena den paella txapelketaren txanda izango da. Arratsaldean, J.M. Atlantidaren saioa, apar festa eta tortilla txapelketa egongo dira. Egunari

amaiera emateko, 22:00etan Akerbeltz erromeria eta 01:00etan DJ Mo-ren saioa egongo dira.

Jaiak domekan amaituko dira, bigarren eskuko azokagaz, umeentzako tailerragaz eta familia ikuskizunagaz.



Errokatibako kideak Txakurzulon.

Abadiñoko Errokatibak 170 urte bete ditu aurten

Joan zen zapatuan dozenaka lagun batu ziren Andra Mariko ermitatik Urkiolara egin zuten Errokatiban

M.Z. ABADIÑO

Orain 170 urte izurrite batek uztak hondatu zituela eta, herritar talde batek San Rokeren irudia Urkiolara eramatea erabaki zuen, santuari laboreen alde egin zezan erregutzeko. Ordutik hona, abadiñarrak urtero errokatiban joan dira Andra Mariko ermitatik Urkiolara.

Kultura, tradizioa eta herritarren parte hartzea uztartzen dituen ekimena joan zen zapatuan egin zuten. Dozenaka lagun igo ziren errokatiban, eta, ondoren, dantzariak saioa egin zuten Urkiolan.

Abadiñoko Udalak eskerrak eman dizkie San Rokeren irudia Urkiolara igo zuten boluntarioei, eta baita belaunaldi aldaketa bultzatu zuten gazteei ere. "Gazteek Txakurzulon leporatu zuten San Rokeren irudia eta tradizioak bizirik jarraitzen duela erakutsi zuten", adierazi zuten. Bestalde, Edurne Maguregi Ongizate zinegotziak nabarmendu du Errokatiba tradizioa dela, baina baita kultura eta komunitatea ere. "Jarraitu dezagun belaunaldirik belaunaldi elkarregaz ospatzen" gaineratu du.



AIKO TALDEA

Aikopekoren aurkezpena Urkiolan

Musika eta dantza edozein herri, auzo edo ospakizunetara eramateko asmoz jaio den Aikopeko proiektua Urkiolan aurkeztuko dute, zapatuan. Aiko taldearen proiektua da eta 13:00etan egingo dute aurkezpena, Urkiola Hotelaren ondoko plazatxoan. Bultzatzaileek azaldu dutenez, kantua da proiektuaren protagonista.

Ardanzak eta Mendik Bizkaiko txapelketa irabazi dute Mallabian

Karlos Ardanza eta Mendi txakurra irailean Garain lehiatuko den Euskal Herriko txapelketan izango dira



Ainhoa Mugarza Mallabiko zinegotzia, Karlos Ardanza eta Mendi txakurra. EHATE

M.Z. MALLABIA

Abuztuaren 17an Bizkaiko 59. Ardi txakur Txapelketa jokatu zuten Mallabian. Hamar txakur izan ziren lehian, eta Karlos Ardanza abadiñarraren Mendi txakurra izan zen irabazlea. Markos Aspizua urduñarra geratu zen bigarren, Negu txakurragaz, eta Juan Jose Egurrola etxebarriarra hirugarren, Baserrri txakurragaz. Lehenengo hirurak irailean 13an Garain jokatu den Euskal Herriko txapelketarako sailkatu dira.

Beste hiru abadiñar ere lehiatu ziren Mallabian jokaturiko txapelketan. Jose Migel Etxebarria eta Soli txakurra bosgarren geratu ziren, Kepa Ardanza eta Urbi txakurra seigarren, eta Jose Angel Azkorbeitia eta Lutxi txakurra zazpigarren.

GREMIOEN GIDA

Zurgintza

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARROTZA

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65

www.carpinteriaaterpe.com



Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garai A - BERRIZ
Tel/Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Elektrizitatea



ELECTRICIDAD JON

622 684 284

electricidadjon@outlook.es



Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com




Iturgintza



**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



San Migel kaleko lanen bigarren fasea, martxan

Hilaren hasieragaz batera, Zornotzako San Migel kaleko hondoratze eremua konpontzen hasi dira; ibilgailuentzat ez ezik errepideak oinezkoentzat ere jarraituko du itxita orain; udalak ibilbide alternatiboa ahalbidetu du azken horientzat

A. M. ZORNOTZA

Martxoan Zornotzako San Migel kalean sortu zen zuloa konpontzen jarraitzen dute. Astelehenetik gora, lan horiek fase berri batean sartu dira. Hain zuzen ere, hondoratu zen eremua bera konpondu eta betetzeko lanei ekin diete aste honetan. Lan horiek bost hilabeteko epean amaitzea aurreikusten du Zornotzako Udalak. Bien bitartean, errepideak itxita jarraituko du fase berri honetan, ibilgailuentzat ez ezik oinezkoentzat ere; udalak ibilbide alternatibo bat ahalbidetu du bigarren horientzat: oinezkoen doazen herritarrek Gure Kirolak gunea inguratu ahal izango dute. Beti ere, udalak segurtasun neurriak errespetatzeko eskatu die herritarrei. Ibilgailuen kasuan, martxotik dago errepidea itxita. Ia sei hilabetez egiturazko lanak eta lan teknikoak egiten aritu eta gero, San Martin errekararen pasabidea konpontzeari ekin zioten astelehenean; lehenengo, inguru-



Zornotzako Udala martxotik dabil eremuan lanean.

nea egokitu zuten lanak behar den moduan egin ahal izateko. Besteak beste, azterketa geotekniko sakona egin dute hondoratzea ikuskatzeko, eta drainatze-espazioa handituko duen egitura aurrefabrikatu baten instalazioan oina-

rritutako irtenbide teknikoa diseinatu eta zehaztu dute: "Irtenbide horri eskerrak, errekararen drainatzea hobetu eta etorkizunean hondoratzeak saihestuko dira". Egitura zaharra erresistenteago batekin ordezkatzeko dute.



Polizia Nazionalaren Dokumentazio Mugikorreko bulegoa.

NAN eta pasaporte zerbitzuak data finkoa izango du Zornotzan

Espainiako Poliziaren Dokumentazio Mugikorreko Bulegoa hileko 3. astelehenetan egongo da Zornotzan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzan NAN eta pasaporte zerbitzua egiteko, Espainiako Poliziaren Dokumentazio Mugikorreko Bulegoaren zerbitzuak data finkoa izango du urritik aurrera; hileko hirugarren astelehenetan izango dute zornotzarrek zerbitzu hori erabiltzeko aukera. Egunean 40 hitzordu eskainiko dituzte, eta interesdunek aurretiaz hartu beharko dute ordua; horretarako, Herritarren Arreta Zerbitzuaren bulegora joan beharko dute, edo 946 300 002 telefonora deitu; Zornotzako Udalaren esanetan,

orain artean martxan egon den WhatsApp bidezko zerbitzuak ez du jarraituko.

Herritarrek NAN eta pasaportea egin edo berritu ahal izango dituzte gunean, eta NANaren ziurtagiri elektronikoa ere aktibatu ahaliko dute (udalak ohar baten bitartez zehaztutakoaren arabera, zerbitzu horretarako ez da hitzordurik behar). NAN berritzeko, herritarrek hamabi euro ordaindu beharko dituzte, eta pasaporterako 30 euro. Horrez gainera, ordainketa eskudirutan egin beharko dutela gogoratu du udalak.

Frankismoaren biktimak gogoratuko dituzte Berrizen

Irailaren 11n Oroimenaren Bidea egin eta panel berria inauguratuko dute. 18:00etan izango da



lazio ekitaldiko argazkia.

A. M. BERRIZ

Berrizko Memoriaren eta Giza Eskubideen taldeak deituta, frankismoaren biktimen aldeko oroimen ekitaldia egingo dute datorren egunean, hilak 11. Ekitaldia 18:00etan hasiko da, Oroimenaren Bideagaz. Udaletxeko parketik irtenda, panel berria inauguratzeko ere baliatuko dute ekitaldia. Ondoren, *Gerra eta errepresioa, Berriz 1936-1939* liburu proiektuaren aurkezpena egingo dute. "Justiziaren eta askatasunaren alde borrokatuta erakutsi ziguten bidea, eta horregaitik gogoratuko ditugu beti giza eskubideak eskatuta", adierazi dute taldekoek. 1937ko irailaren 11n Felipe Urtiaga eta José Agirre berriztarrak fusilatu zituzten Derion. Urte bereko abuztuan, Gregorio Urkijo fusilatu zuten, eta urte batzuk geroago Fermin Aranguren, Asturiasen.

Udako bisita gidatu bi egiteko aukera geratzen da Elorrión

Zapatu honetan izango da lehenengoa; irailaren 14an bigarrena. Hiribildua eta Zenita Berdea bisitatuko dituzte

A. M. ELORRIO

Elorrioko Turismo bulegoak udan egiten duen kanpainaren barruan antolaturiko bisita gidatuetariko bitan parte hartzeko aukera dago oraindik. Horietako lehenengoa bihar izango da, irailak 6, zapatua. Hiribilduari buruzkoa izango da, gaztelaniaz. Azkena irailaren 14an izango da eta Zenita Berdea izango du izenburu; euskaraz izango da hori. Bisita horietan izena ematen duten lagunek argazki eta esaldi lehaketan ere parte hartzeko aukera izango dute. Informazio gehia-

gorako, 946 820 164 edo 688 776 270 telefono zenbakietara deitu daiteke, edo turismoa@elorrio.eus helbidera idatzi.

Turismo bulegoak ekainaren 21ean ekin zion bisita gidatuak antolatzeari. Guztira, hamazazpi hitzordu egin dituzte udan, eta, besteak beste, hiribildua, Argiñeta, Zenita, Basilika eta auzoetako ondare industrialak bisitatu dituzte. Aste Santuko bisiten arrakastak hauspotuta antolatu dituzte udakoak. Turismo bulegoak Elorrio ezagutzeko gida birtuala ere prestatu du.

DURANGO

EMAN IZENA

72,36€

HIZ KUN TZA

ESKOLA OFIZIALA

ZIURTAGIRI OFIZIALA

Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK (on-line)

Talde presentzialak eta erdipresentzialak

1.fasea irailaren 1etik 16ra, biak barne

2.fasea irailaren 17tik urriaren 6ra, biak barne

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 944 288 310
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net



HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



'Welcome&Sorry' antzezlan, iluntze honetan Apatako plazan

Atxondoko Kultura Mahaiak, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza bat baliatuta, kalera atera du antzerkia. Ekainerako, uztaierako eta irailerako hiru kale-antzerki antolatu dituzte, hile bakoitzerako bat. Azkena gaur izango da, 20:00etan, Apatako plazan

M.Z. ATXONDO

Atxondoko Kultura Mahaiak *Kale Antzerkia Bultzatuz* zikloaren barruan antolaturiko hirugarren eta azken emankizuna gaur izango da, irailak 5, 20:00etan, Apatan. Bertaratzen direnek Ganso&Cia konpainiaren *Welcome&Sorry* antzezlan ikusteko aukera izango dute. Obra honetan, teatroa maite duten antzerki-maisu bi Hamlet fidelitasunez taularatzen ahaleginduko dira, kaos dibertigarri bati bidea emanez. "Obra hau klasiko handien parodiatik eta haien inguruko estereotipoe-tatik antzerki-lanbidea erakusten duen lana da. Keinu bidezko clown-komedia, publiko guztientzat", esan dute antolatzaileek.



Welcome&Sorry kale antzerkiko momentu bat. GANSO.INFO

Mañarian Aita Kurutzeko eguna ospatuko dute irailaren 14an

Dantzari gazteen saioa eta luntxa egongo dira meza ostean, bertaratzen diren herritar guztientzat



Dantzarien saioa izango da, besteak beste.

J.D. MAÑARIA

Irailaren 14ko domekan Aita Kurutzeko eguna ospatuko dute Mañarian. Tradizioari eutsiz, meza egongo da lehenengo, 11:00etan. Ondoren, jaiegunak aurrera jarraituko du. Mañariko dantzari gazteek saioa egin-

go dute. Amaitzeko, luntxa egongo da bertaratzen diren guztientzat.

Abuztuan San Lorentzo eguna ere ospatu zuten mañariarrek, izen bereko ermitaren bueltan. Orduan ere dantzarien saioa eta luntxa izan ziren.

Saibigain-Iturriotz pase lerroko postuen zozketak, irailean

M.Z. IZURTZA

Izurtza eta Mañariko Mugarra Ateneo Zinegetikoak Saibigain-Iturriotz pase lerroko postuen zozketak egingo ditu. Zozketa Mañariko Herriko tabernan egingo dute.

Urriko baimenen zozketa orokorra irailaren 12an egingo dute, 20:00etan. Eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 10a izango da. Bestalde, bazkideen zozketa irailaren 16an izango da, 19:00etan. Adierazitako egunetan jaso ez diren baimenak lehenengo ehiztariari emango zaizkio, irailaren 20tik aurrera.

Azaroko baimenen zozketa orokorra irailaren 26an izango da, 20:00etan. Kasu honetan, irailaren 24ra artekoa da izena emateko epea. Bazkideen zozketa urriaren 21ean izango da, 19:00etan.

Eskaerak Antonio Txiki okindegian batu eta utzi daitezkeela jakinarazi dute antolatzaileek, astelehenetik barikura.

Garaik komun publiko autogarbigarria izango du

San Migel aldean ipiniko dute, txintxaunen inguruan. Aurreikuspenen arabera, udazkenean hasiko dira eraikitzen. Garaiko Udalak 83.000 euroko inbertsioa egingo du. Herriko Taldeak gogoratu du proiektua bere hauteskunde programaren zati zela

Ekaitz Herrera GARAI

Garaik zerbitzu berri bat izango du laster: komun publiko autogarbigarria. Zerbitzua plazatik gertu ipiniko dute, San Migel aldean, umeentzako jolas parkearen inguruan. Aurreikuspenen arabera, udazken partean hasiko dira instalazioa eraikitzen. Enpresa onuradunak hiru hilabeteko epea izango du lanak amaitzeko. Garaiko Udalak 83.670 euroko inbertsioa egingo du instalazio berria ipintzeko. Aldundiak 50.000 euroko laguntza emango du.

Garaiko EAJk eta Herriko Taldeak herrian komun publikoa ipintzea adostu zuten 2025eko udal aurrekontuetan. Herriko Taldeak gogorarazi du berea izan zela proposamena: "Gure hauteskunde programako proiektuetariko bat zen, jeltzaleen programan ageri ez zena. Udalerrian komun publikoa ipintzea izan zen, hain zuzen ere, udal aurrekontuei baiezkioa emateko bal-



Komun publikoaren infografia. GARAIO UDALA

dintza", adierazi du Jon Martin Larruskain Herriko Taldearen bozeramaileak. EAJren gobernu taldeak begi onez ikusi zuen proposamena, eta halantzik, Garaiko udal aurrekontuek aho batez egin zuten aurrera. Komu-

naren kokalekuari dagokionez, udalak adierazi du San Migel aldean kokatzea erabaki duela, "urbanizaturiko gunean ahalik eta trabarik txikiena eragiteko" eta "erabiltzaileen irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzeko".

Hondaturiko bost bide publiko konponduko dituzte Iurretan

Goiuria, Arriandi eta San Andres auzoan daude baserri bideok; udalak 48.000 euro erabiliko ditu lanak egiteko

E.H. IURRETA

Iurretako Udalak herriko bost bide publiko konponduko ditu eta abiadura murrizteko sistema ipiniko du horietariko batean. Horrela jakinarazi dute abuztuan. Egokituko dituen errepideak landa-eremuetara ailegatzeko bideak dira: Agirretxebarrian (Goiuria), Telleriaetxebarrian eta Tellerian (Arriandi) eta Kukutzaetxebarrian eta Kukutzazarran (San Andres) egingo dituzte jarduketak. Gaur egun, bide horien "kontserbazio-egoera txarra da" eta zaildu egiten dute



Eubebaso. IURRETAKO UDALA

pertsonen zein ibilgailuen ohiko joan-etorria, azaldu dutenez.

Bestalde, abiadura-murriztailea ipiniko dute Eubabason, Arriandiko industrialdean. Ibilgailu astun eta arinak abiadura handian mugitzen direnez, arrisku egoerak saihestea da helburua. Lanek hile bi iraungo dute eta 48.272 euro erabiliko dituzte horiek egiteko.

Eki ibilbidea

Bestalde, Eki ibilbidea berregokitzen amaitu dute abuztuan. Udalak 50.000 euro erabili ditu Cola Caoren itzulia legez eza gutzen dena konpontzeko (2024ko aurrekontu parte hartzaileetan proiektu aukeratua). Garaizar eta Amatzaz auzoak batzen dituen 635 metroko tarte ere egokitu dute eta etorkizunean argiteria publikoa ipiniko dute bertan.

Herri galdeketak egiteko aukera zabaldu dute Otxandion

Udalak Herri Galdeketen Ordenantza onartu du, herritarrek udal gobernantzan duten parte hartzean sakontzeko

A. Basauri OTXANDIO

Udal gobernantzan herritarren parte hartzea bermatzeko pauso bat gehiago eman dute Otxandion. Udalak Herri Galdeketen Ordenantza onartu du, herritarrei aukera emanez udal eskumeneko gaietan iritzia emateko, "modu demokratiko, garden eta arautuan". Ogasunagaz loturiko gaiak salbuesita daude.

Herritarrek zein udalak egin ahal izango dute galdeketarako eskaria. Erroldatuta dauden % 20ren sinadurak aurkeztu beharko dituzte herritarrek. Udalak, oster, zinegotzien laurden bat batuta egin ahal izango du, edo ordezkariak duten udal talde bik. Eskariari bidea emateko, udalbatzak aho batez onartu beharko du, Egoitz Garmendia alkateak azaldu duenez. 16 urtetik gorako otxandiarrek izango dute bozkatzeko eskubidea. Era berean,



Arte kalea.

galdeketaen parte hartzea erroldaren % 30 baino txikiagoa bada, ez da herri borondatearen adierazle modura hartuko. "Galdeketa kontsultarako dira, ez dira lotesleak. Baina, eskaria onartzean, emaitza aintzat hartzeko borondateagaz egiten da", gehitu du.

Enpresa proiektuen lehiaketa ipini dute martxan Iurretan

Irabazleak 6.000 euro lortuko ditu, proiektuari ekiteko; proposamenak urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke

A.M. IURRETA

Iurretako enpresa proiektuen lehiaketaren edizio berria ipini du martxan udalak. Hain zuzen ere, XVII. edizioa izango da aurtengoa. Parte hartzaileek urriaren 31ra bitartean dute aukera euren enpresa proposamenak aurkezteko. Lehiaketaren irabazleak 6.000 euroko saria lortuko du proiektua garatzeko.

Iurretako hirigunean enpresa berriak sortzea bultzatu gura dute ekimenagaz. Helburu horrexegaz antolatu du Iurretako Udalak enpresa proiektuen lehiaketa. "Bidea erraztu gura diegu herrigunean euren enpresa sortuz lan egiten hastea erabakitzen dutenei. Aurretik, udalak hainbat jarduera martxan ipintzea erraztu du, hala nola gimnasioak, hortz-klinikak edo argitalpen enpresak", gogoratu dute udal ordezkariak ohar baten bitartez.

Proiektua garatzeko aukera

Jarduera hasi duela jakinaraztean, irabazleak sariaren % 20 jasoko du udalaren eskutik, eta jarduera garatzeko behar diren neurri zuzentzaileak aplikatu direla baieztatzerakoan, % 50. Azken zatia jarduera hasi eta urtebetera emango zaio, enpresari eusten zaiola erakusten dituzten frogagiriak aurkeztu ondoren, udal arduradunek azaldu dutenez.

Ekintzaile guztiek parte hartu dezakete. Beti ere Iurretako herrigunean kokatuko den enpresa proiektu bat badute, gehienez sei hilabetera martxan egongo dena. Besteak beste, proiektuaren deskribapen maila, originaltasuna eta kalitatea kontuan hartuko dira, bideragarritasun mailagaz batera. Bultzatzailea herrian erroldatuta dagoen ere kontuan hartuko da.

Irailaren 15era arte dago aukera argazki lehiaketan parte hartzeko

Parte hartzeko, argazkiak 'www.anboto.org' webgunean ipini behar dira, edo 688 635 041 zenbakira bidali

M.Z. DURANGALDEA

Oporrak eta uda sasoia momentu paregabea izaten dira argazkilari senari bide eman eta irudi zoragarriak ateratzeko. ANBOTO n irrikan gaude udan atera dituzuen argazkiak ikusteko, eta horregaitik,

beste urte batez, Udako Argazki Lehiaketa antolatu dugu. Eta, zelan ez, argazkirik politenak saritu gura ditugu. Hori horrela, irailaren 15era bitartean, lehiaketan parte hartzeko aukera duzue, argazkiak www.anboto.org

webgunean ipinita edo 688 635 041 zenbakira bidalita.

Argazkiak arlo bitan aurkeztu daitezke: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Lau sari daude: Durangaldeko argazkirik onenarentzat smartbox bat, eskualdetik kanpoko argazkirik onenarentzat euskal produktuen otzara bat, Durangaldeko argazkirik bozkatuenarentzat egonaldia Garaiko Landetxean, eta eskualdetik kanpokoarentzat Databostek eman dako aurikularrak.



Aurtengo lehiaketako argazki bat.



POLITIKAN

CARLOS GARCIA
PP

Igogailu berria Durangoko Adinekoen Zentroan

Irailaren 2tik, asteartetik, Astarloa eraikineko igogailu berria martxan da, Udal Adinekoen Zentroa, Cáritasen bulegoak eta Adinekoen Egoitza hartzen dituen.

Beharrezkoa zen igogailu berria, zaharra guztiz hondatuta baitzegoen. Motela eta txikia zen, eta gure adinekoak kalean geratzen ziren astean hainbat aldiz.

"OSO ERAGIN POSITIBOA DU EHUNKA ERABILTZAILEREN BIZITZAN"

Orain, udalaren laguntzarekin eta azpiegitura honetarako Durangoko udal aurrekontuan gehitu ditudan 60.000 euroekin, eraikinarekin jabeekin adostu dugu beharrezko hobekuntza hau sustatzea, eta dagoeneko oso eragin positiboa du ehunka erabiltzaileen bizitzan, gehien behar duten eta gehien merezi duten pertsonengan, gure adinekoengan. Gainera, horietako askok mugikortasun arazoak dituzte.

Igogailurako 60.000 euro hauek, aurrekontuari egindako zuzenketarekin batera sartu direnak, zailantzarik gabe, aurtengo udal aurrekontuan ondoen gastatutako 60.000 euroak dira, eta zinegotzi gisa oso pozik sentiarazten nau gure adinekoen bizitza hobetzen laguntzeak.

DURANGALDEA ASTEON

Gaurtik aurrera, Gaztelekua zabalik Zaldibarren

ZALDIBAR Gaurtik aurrera, Zaldibarko Gaztelekua zabalik dago berriro ere, 10etik 16 urtera arteko gazteei asteburuko aisialdirik interesgarriena eskaintzeko. Aurten ere askotariko ekintzak egingo dituzte: sukaldaritza tailerrak, lehiaketak eta berbaldiak, besteak beste. Parte hartzeko nahikoa izango da Olazarrera joatea. Ordu-tegiari dagokionez, bariku, zapatu eta domeketan 17:00etatik 20:30era egongo da zabalik.



Amaraun Arte Fabrikan lapurretan sartu dira

ABADIÑO Mezu baten bitartez, Amaraun Arte Fabrikak "lapurreta gorra" jasan duela salatu dute asteon, eta kultur gunea "oso egoera ekonomiko larrian" utzi dutela nabarmendu dute. Dena dela, urtea amaitu arteko ekintzei eutsiko dietela azaldu dute. "Eraso honek ez gaitu joko kanpo utziko eta urte amaierara arteko ekintzekin aurrera egingo dugu. Orain inoiz baino gehiago, zuen babesa eta elkartasuna beharko ditugu gertatutakoari aurre egiteko", gaineratu dute.



MIGUEL ANGEL SANCHEZ 'MAÑARIA IBAIA'

'Nire txokorik gogokoena' lehiaketak badu irabazlea

DURANGO Durangoko Udalaren esanetan, *Nire txokorik gogokoena* lehiaketak "harrera ezin hobea" izan du bere lehenengo edizioan; 169 argazki aurkeztu dituzte eta Miguel Angel Sanchezen *Mañaria ibaia* argazkia izan da irabazlea. Sanchezek 200 euroko saria jasoko du. Bigarren saria Tomas Sanchez Almenarak irabazi du. Udalaren esanetan, "Durangoren esentzia islatzen duten irudiak" saritu dituzte.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.




LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

ELORRIOKO JAIK 2025



688 86 52 94

Salatzeko eta informazioa jasotzeko telefonoa

**ERASO MATXISTA,
TRANSFOBO ETA
HOMOFOBORIK EZ**

**SARETU,
ANTOLATU,
ELKAR
ZAINDU**



Elorrioko udala

ELORRIOKO JAIK 2025

IRAILAK 5

15:00 Bazkaria. Elizpean.

Ostean Elkartasun Argazkia.
Aurrera palestinar
erresistentzia.

17:00 Bixkor txaranga.

18:00-20:00 Ferixa Nausikoetan
eraso matxistak prebenitzeko
material banaketa: telefonoen
txartelak, protokoloa,
betaurrekoak, edalontziak,
eskumuturrekoak... Udaletxeko
atarian.

20:00 Txosnen irekiera, Bixkor
txarangagaz. Txosnagunean.

21:00 LIX. Idi proba txapelketa.
Probalekuan.

22:00 Kontzertuak. Txosnagunean
Nekktar
Against You
Hofe

01:00 Gaztetxean.
Atenas, Nisus & Santxo

IRAILAK 6

11:30-14:00- 16:30-19:00 Haur
parkeak.

13:00 Bitsaren jaia.
Esteibarlandan.

14:30 Elkartasun bazkaria.
Txosnagunean.

17:15 Elorrioko – Antxo –
Sasikoa. Hiru aldeko partiduak.
Antolatzailea: Elorrioko
Buskantza FKE. Kiroldegia
+info: @elorriokobuskantzafke

18:00 Elorrioko buruhandiak.
Plazan.

18:30 Ondalan erraldoien
konpartsa. Plazan.

19:00 Erromeria. Gauargi
taldea. Plazan.

20:00 Txupinazoa eta pregoia:
pertsonak zaintzen eta
etxeko lanetan diharduten
emakumeak. Plazan.

21:00 LIX. idi proba txapelketa.
Probalekuan.

22:00 Gaztetxean.
721, Laino Beltzak

22:15 Suzko zezena. Plazan.

22:30 Danborrada. Plazan.

23:00 Tik Tara (saltza). Urarkan.

00:00 DJak. Txosnagunean.
Xaukena Xauk, Martinez

06:00 Gaztetxean.
Metralletas

IRAILAK 7

10:00 Abere, nekazaritza eta
artisau azoka. Ferixalekuan.

Goizean Txistularien kalejira.
Antolatzailea: Elorrioko
txistulariak

12:30 Kalejira. Fanfarria Ku-
Klux.

17:30 Pilota, zesta eta pala
partiduak. Hilario Azkarate
pilotalekuan.

18:00 Umeen danborrada.
Plazan.

19:30 Haize Arrosa taldearen
kontzertua. Plazan (triki, pop,
rock).

20:00 Afariak (takoak).
Txosnagunean.

22:15 Suzko zezena. Plazan.
22:30 Correfoc K de Calle. ibiltaria
"Kaña Resurrections 3.0"

IRAILAK 8

12:00-14:00 17:00-20:00 Txu-
txu trenak.

Goizean DJ Flyu. Aldatsekuan.

13:00 Tortilla lehiaketa.
Aldatsekuan.

14:00 Kuadrillen arteko
bazkaria. Aldatsekuan.

*Mahai eta aulki banaketa
goizeko 9etatik aurrera

17:00 Joselontxos Txaranga.
Aldatsekuan.

18:00 Kuadrillen jaitsiera.
Joselontxos Txaranga

18:00 Elorrioko DJ-ak. Plazan.

18:30 16 urtetik gorako
koadrillen arteko jolasak. Plazan.

19:00 Erromintxelak (swing,
folk). Urarkan.

21:00 Erromeria Mugi Panderoa.
Txosnagunean.

22:15 Suzko zezena. Plazan.

23:30 DJ Bull. Plazan.

IRAILAK 9

11:00-14:00 16:30-20:00
Zintzilik emozioen laborategia.
Ganondon.

11:30-14:00 16:30-19:00 Haur
parkeak.

18:00 Elorrioko buruhandiak.
Plazan.

18:00 C.D. Elorrio – Athletic



Akebaso JK
Harategi eta udaltzategia
Kantxale, 2 behea
Elorrio



Parriaundi
BERTOKO OGIA - BENETAKO OGIA
Parriaundi Elorrio
Urarka kalea 21, Elorrio
946 582 003



PORTALEKUA
EUSKAL PRESOK
PORTALEKURA
Erreka, 34
Tel.: 946 58 31 77



Parria
Izan kaña, izan ardoa,
eskatu euskaraz zure tragoa

Certified **First**
AUTOGAIN
TALLERES
TXAPA eta PINTURA
PNEUMATIKOAK
San Agustin Indus. 57, 6 nabeta.
ELORRIO (Bizkaia)
Tel.: 946 056 732 / Mug.: 679 174 367
autogain@hotmail.es

Tanger
J A T E T X E A
Ibaikua, 8. ELORRIO
Tel.: 946 820 052



OKINDEGI
MAZORRI
GOZOTEGI
Musiko Arriola, 1
Elorrio
Tel: 946 231 415
Tel: 946 820 888

ANBO
IGELTSARITZA
TA ERREFORMAK
Toño
Rodríguez Moreno
Elizalde, 9 - 1. ezk. ELORRIO
94 682 08 89 - 680 62 70 65
anroinfo@gmail.com

berriozabaleta
ITURGINTZA
BEROKUNTZA
GASA
INSTALATZAILE
BAIMENDUA
Elorrio
berriozabaleta@yahoo.es
Tel.: 609 381 887

Club – S.D. Eibar. Hiru aldeko partiduak. (3 RFEF maila).
Antolatzailea: C.D. Elorrio Elizalde

19:00 Kale-antzerkia. Plazan.
"Wellcome" Ganso & Cia

21:00 LIX. idi proba txapelketa.
Probalekuan.

IRAILAK 10

11:00-14:00 16:30-20:00
Zintzilik emozioen laborategia
Ganondon.

16:30 Umeentzako jolasak.
Plazan. Antolatzailea: Txintxirri Ikastola

17:00 3x3 saskibalo txapelketa.
Antolatzailea: Udalaitz S.T. San Joseko kanastatan

17:00 Mus txapelketa.
Txosnagunean. Izen ematea 16:00etatik 16:45era.

18:00 Elorrioko buruhandiak.
Plazan.

18:00 Txokolatada. Plazan.
Antolatzailea: Txintxirri Ikastola

18:00 C.D. Elorrio – Abadiño.
Gizonezkoen partidua (lehentasunezko maila).
Antolatzailea: C.D. Elorrio. Elizalden

19:00 Kale antzerkia. Plazan.
'Art-Lucio' Markeliñe.

IRAILAK 11

18:30 Etxekoak Durangoko Ibaizabal taldearen aurka.
Antolatzailea: Elorrio. Kiroldegian Txantxibiri Eskubaloia Kluba

19:00 Zirkoa "Baboom"
Xabi Larrea. Urarkan

20:00 Kontzertua. Txosnagunean.
Edu Zardoya.

22:00 Gaztetxean.
Leihotikan (7 euro)

IRAILAK 12

09:15 Zirkularra Elorrio
(Plaza-San Roke-San Jose-Autokarabana Gunea-Arraiarte-San Agustin-Kurutxondo-Plaza-Kiroldegia-Txanberi-Angio-Gazeta-Gerbilla-Aldape-San

Juan-Zenita-Argiñeta-Lekeriketa-Kurutxondo-Plaza)
Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun Nagusien Elkarte

11:30 Hildako jubilatuen omenezko meza. Sortzez Garbiaren Basilikan.

13:00 Kopaua jubilatuentzat eta ibiltarientzat. Aldatsekuan.

18:00 Elorrioko buruhandiak.
Plazan.

18:00 Jubilatuentzako dantza.
Aldatsekuan.

19:00 Zirkoa 'Yugen'.
La Banda Teatro Circo. Urarkan

20:00 'Hitaz Orhoit' ikuskizuna.
Kresala Dantza Taldea. Arriolan.

22:15 Suzko zezena. Plazan.

22:30 Kontzertuak txosnaguneak antolatuta. Plazan.
Tatxers
SÚNE

00:00 Gaztetxean.
Jamaiketako
Noseke

IRAILAK 13

8:00 Sukalki eguna.
Antolatzailea: Iturizoro elkarteartea. Aldatsekuan Zatoz moxorroa jantzita!

11:30-14:00 16:30-19:00
Haur parkeak.

12:00-14:00 17:00-20:00
Txu-txu trenak.

13:00 Bitsaren jaia.
Esteibarlandan.

16:00 Eingo plaza dantza eta euskal kantak. Aldatsekuan.

18:00 Txokolatada. Plazan.
Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkarte

18:00 Karrozen jaitsiera.
Aldatsekuan.

18:00 Disko Sound 4.
Plazan.

21:00 LIX. Idi proba txapelketa.
Probalekuan.

22:00 Gaztetxean.
Apotheke
Neallta Fola

22:15 Suzko zezena. Plazan.

23:00 DJ Delko & DJ Sierritx.
Plazan.

23:00 Mariatxi Rumbo a Tijuana. Urarkan.

00:00 DJ gaua. Txosnagunean.
Natrixx + Kifi Boy
Lamikiz
Sierritx

IRAILAK 14

11:30-14:00 16:30-19:00
Haur parkeak.

12:00 Elorrioko kolore eta zapoak. Antolatzailea: ONG Kainabera GKE. Kanpokalen

13:00 Herri kirolak. Plazan.

18:00 Bertso saioa: Aner Peritz, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.
Aldatsekuan.

19:30 "Haurreskolari" dantza ikuskizuna. Plazan
Tio Teronen Semeak.



BEROKUNTZA-INSTALAZIOAK: GASA, GASOLIOA ETA EGURRA
ITURGINTZA - EGUZKI PLAKAK - GEOTERMIA INSTALAZIOAK
INPERMEABILIZAZIOAK - GAS PROPANOKO INSTALAZIOAK

San Juan, 4 - Tel.: 946 820 062
Mug.: 657 796 590
Elorrio



HIRIGINTZA ETA
INMOBILIARIA BULEGOA

Zure konfiantzazko
inmobiliaria

jai zoriontsuak izan!

Urarka. 1 - 48230 Elorrio
Tel.: 946 820 041
Faxa: 946 231 630
argineta@euskalnet.net
www.argineta.net



HAUEN SALMENTA, KONPONKETA
ETA MANTENTZEA:

- KONPRESOREAK
- LEHORGAILUAK
- INSTALAZIO PNEUMATIKOAK
- AIREARENTRATAMENDUA
- HOTZ INDUSTRIALA

ZERBITZU OFIZIALA:
BOGE

48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel.: 946 820 666
berriair@berriair.com



- TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK: Atera ezazu teorikoa 5 egunean, 1099k gailinditzen du.
- CAP ikastaroak profesionalentzat
- Teoriko orokorra euskaraz ONLINE
- Gida balmen guztiak

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 946 583 441
ELORRIO



Egitura metalikoak • Enpresen mantenua •
Altzairu erdolgaitza • Forja artistikoa •
Soldaketa bereziak

Berriz Etor. 5, 14PK - 48230 ELORRIO Tel.: 671 650 143
soldaketakelorrio@yahoo.es 656 770 339



MEKANIKA OROKORRA
AUKERAKO IBILGAILUEN SALMENTA
KARROZERIAK

Tel. 94 658 30 60
Pol.Betsaide, 9
48230 ELORRIO



Psicoterapia & Podología
INDIBA EKOGRAFIAK

ONDO PASA
JALETAN!

info@hobetu.es
Tel: 946 582 444
Buzkantz kalea, 2 - Elorrio
www.hobetu.es



Telekomunikazioa - Elektrizitatea
Elektronika - Mantenua

Ibarrakalea, 5 baxo - Elorrio
Tel: 946 582 943 / 685 750 401

Aritz Maldonado ELORRIO

Grettel Antonia Díez Gutiérrez eta Xiomara del Carmen Pérez nikaraguarrak dira jatorriz, baina Elorrioren ezagutu dute elkar, *Zaintza barik bizitzarik* ez ikastaroan. Diezek urte bi daramatza herrian, eta del Carmenek sei, eta biek ala biek 93 urteko emakume bana zaintzen dute. Elorrioko Ferixa Nausiko jaiei hasiera emango diete zapatuko txupin jaurtiketaz, eta euren lana ikusgarriago egiteko baliatuko dute aukera. Lanak denbora askorik utzi ez arren jaiak gozatzeko, *Zaintza barik bizitzarik* ez ikastaroan urteotan parte hartu duten kideak festan murgilduko dira. "Gutariko askok ezingo dute ekitaldian parte hartu, lan ordutegiengaitik, baina gure jarduna ezagutarazteko baliatuko dugu aukera", azpimarratu dute nikaraguarrak. Horrez gainera, abutzuan zendu zen Bixente Aizpurua ere gogoan izango dutela aurreratu dute. "Beti zegoen guri laguntzeko prest, eta estimu handitan geneukan horregaitik", esan dute. **Pozik zaudete pregoia irakurtzeko aukeragaz?**

"Gure lana ikusgarriago egiteko espazioa da txupina"

GRETTEL ANTONIA DÍEZ GUTIÉRREZ ETA XIOMARA DEL CARMEN PÉREZ PREGOILARIAK
Grettel Antonia Díez Gutiérrez eta Xiomara del Carmen Pérez nikaraguarrak Elorrioko Ferixa Nausikoetako pregoia irakurriko duen taldeko kideetarik bi dira

Grettel Antonia Díez Gutiérrez: Ni oso pozik nago, kontuan hartu gaituztelako. Beharbada, pertsona ezagunak izan ez arren, zaintzen ditugunekin batera

familia bat osatzen dugu eta herrian ere oso pozik nago; bertako jendea oso atsegina da eta nire etxean lez sentitzen naiz. Alde horretatik, ez dut

nire herrialdearen falta igartzten. Nire familiarena bai, jakina, baina herrialdearena ez. Oso pozik nago hemen, gustura. **Xiomara del Carmen Pérez:**

Ni ere oso pozik nago gonbida-penagaz. Antolatzaileei eskerrak eman gura dizkiegu etxeetako zaintzaileak eta gure lana kontuan hartzearen. Pozgarria da hori, egiten dugun lana, adineko pertsonak zaintzea, ikusgarriago egingo duelako. Hain zuzen ere, herriko jaietan espazio bat ematen digute horretarako, gure lana ezagunago egiteko.

Irakurriko duzuen mezua hortik joango da?

G. A. D. G.: Egun horretan irakurriko dugun mezua emakume migratzaileona da. Beste herrialde batzuetatik heldu gara hona, lan egitera, gure ekarpena egitera; gure kasuan, adineko pertsonak zaintzera.

Zer da Elorrioko Ferixa Nausikoetatik gehien gustatzen zaizuen?

G. A. D. G.: Aurtengo jaietan gehiago irtengo gara. Gure lan ordutegia dela eta, ez ditugu jaiak asko ezagutzen, baina ahal dugun neurrian irten eta gozatzeko ahalginduko gara.

X. D. P.: Aurtun txupin jaurtikitik parte hartuko dugu, eta hortik aurrera geu ere murgilduko gara jaietan. Behin txupina jaurtita, hainbat herrialdeetatik etorri

CUMENOR
ERAIKUNTZA-ENPRESA

- Mota guztietako obrak (ligelserotza, egiturak eta proiektuak)
- Estalki eta fatxadak ibiderak.
- Estalkien birgaikuntza eta mantentze-lanak.
- Amiantoa kentzeko lanak.

Enpresa, partikular eta jabeen erkidegoentzat zuzenduta

ESKATU INFORMAZIOA ETA
AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Ibaizabal k/ 1- 48260 Elorrio Bizkaia
info@cumenor.com - www.cumenor.com Tel.: 946 215 677

ELORRIO BULTZATZEN
ONDO PASA JAIEGAN!

B betsaide

www.betsaide.com
Betsaide, 1 Elorrio
Tel.: 946 534 560

**ARKI
TEK
SAN**

ARKITEKTURA ESTUDIO TECNICA

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
INFO@ARKITEKSAN.COM

ETXEANDIA
Administración de Fincas

Nazaret Etxeandia Berrio
Kolegiatu zk.º 37.046

946 202 673
etxeandia_admon@yahoo.es
Erreka kale, 17 behe 2
ELORRIO (Bizkaia)

U3 Arkitektura Teknikoa

Ibaizabal kalea, 1
48230 Elorrio
Tel.: 672 256 352

Eraikuntza-obrak
Proiektuen kudeaketa osoa
Obra berria, birgaikuntza,
zaharberritze lanak eta
legalizazioak

info@u-3.es

eka 20
arkitektura

Silvia Urutxi Arkarazo
Tel.: 699.356.607
arkitektura@ek202.com

eta etxeko eta zaintza lanetan ari garen emakumeok harremandu eta elkarregaz egoteko aukera ere izango dugu. Urtean zehar ere horixe egin dugu, eta, horri eskerrak, Elorrion lan egiten dugun emakumeok harremandu eta elkar hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

'Zaintza barik bizitzarik ez' ikastaroetan parte hartu duzue. Zelan esperientzia izan da?

G. A. D. G.: Pertsona nagusien zaintzari buruzko informazioa eta trebakuntza jaso ditugu, batez ere. Adibidez, larrialdi kasuetan zelan jokatu ikasi dugu, zorabio eta bihotzeko kasuetan. Erredurak identifikatzen ere ikasi dugu, zein mailatakoak diren, edo diabetikoen kasuan zer egin behar den larrialdirik egonez gero... Psikologikoki ere trebatu gara; izan ere, garrantzitsua da pertsona helduekin

"ZAINZA LANETAN ARI GAREN EMAKUMEOK ELKAR EZAGUTZEKO ERE BALIAGARRIA DA"



Grettel Antonia Díez Gutiérrez eta Xiomara del Carmen Pérez.

zelan komunikatu ikasteko.

X. D. P.: Egoera desberdinetan zelan jokatu ikasi dugu, ohatuta dagoen pertsona bat zelan mugitu gurrildun aulkira. Komunikazio arloan asko sakondu da, oso garrantzitsua delako. Azken finean, pertsona nagusiek estimua eta afektua behar dituzte batez ere. Eurekin zelan berba egin eta eurak zelan animatu ere ikasi dugu. Askok ikasi dugu ikastaro horretan, eta udalak eskaintzen dituen beste batzuetan ere bai.

Azken mezu bat elorriarrentzat?

G. A. D. G.: Eskerrak ematen dizkiogu mundu guztiari; besteak beste, udal ordezkariak, gugaz oso ondo portatu direlako. Baita gure nagusiei ere, babesten gaituztelako; azken finean, euren eskerrak parte hartu ahal izango dugulako ekitaldian. Lehen esan dudan moduan, elorriarrak oso atseginak dira eta oso gustura gaude hemen. Heldu berriak izan arren, herriaren parte sentitzen gara, eta berotasuna eman digutelako da hori.

X. D. P.: Eskerrik asko denoi! Elkarriketa hau bera etxe askotara helduko da eta horrek ere ezagutaraziko du gure jarduna. Oso pozik gaude.

BATZOKI
ELORRIO

www.batzokiellorrio.es
Urarka 13 - Elorrio / T. 94 685 5656 / M. 615 258 035

LABORAL kutxa

Berrio - Otxoa, 5 Elorrio Tel: 94 658 27 61

MAPFRE

VANESSA BERAZA
Aseguruak eta inbertsioak
MIFID II

946 582 448 • 679 182 536
Karpokale, 10 ELORRIO
vrulzca@mapfre.com

ITZIAR SOLOZABAL
ALTZARIAK DEKORAZIOA
ELORRIO

santillán
instalaciones™

Gas naturaleko instalazioen, klimatizazio-sistemen, berokuntza-sistemen, hozte-sistemen, aire konprimatuaren eta abarren ingeniaritza eta muntaketa. Aire aldaketa itzela!

Betsaide Ind. II. pab B5/B6 · 103 · 48230 Elorrio · Bizkaia
Tel: 946 238 000 · Fax: 946 238 550 · info@santillan.es · www.santillan.es

GU BABESTEKO JAIO ZEN LANBIDEA

SOLATSU
Telleria - Baserria

Interpretazio Zentroa - Bisita gidatuak eta Tailerrak

San Agustín Auzoa 50 48230 Elorrio · Bizkaia
634 73 52 92 / info@solatsu.com
www.solatsu.com



Iazko jaietako txupinazoan ateratako argazkia.

Txapligua lehertzea baino ez da falta

Jaiei hasiera emanda, aste biko festei ekingo diete. Egitarau oparoa prestatu dute: kontzertuak, tradizio handiko ekitaldiak, sukalkiak eta baita azoka ere

Jone Guenetxea ELORRIO

Pertsonak zaintzen eta etxeko lanetan dabilzan emakumeek jaurtiko dute txupinazoa Ferixa Nausikoetan jaiei hasiera ofiziala emateko. Sei urtetik hona, Osakidetza, Elorrioko Berdintasun Saila, Mugimendu Feminista, herriko kultur elkarteak eta zaintza lana egiten duten emakumeak formakuntza egiten dabilta. Eta aurtien kolektibo horretako emakume zaintzaileei eskaini diete jaiei hasiera emateko aukera.

Itsaso Basauri kultur zinegotziak jaien aurkezpeneko prentsaurrekoan azpimarratu zuenez, "egitaraua Elorrioko eragile eta langile askoren artean osatzen da". Zinegotziak azaldu zuen lan kolektiboaren emaitza izan dela. 260.000 euroko inbertsioagaz, udalak apustu ekonomiko "sendoa" egin du. Jai parekideen aldeko aldarria egiteaz gainera, eraso matxista zein arrazistak prebenitzeko kanpainak martxan ipiniko dituzte. Horrez gainera, erasoren bat gertatuz gero telefono zenbaki bat ere ipini dute bertara deitzeko: 688 865 294.

Adin tarte denentzako ekitaldiak izango dira. Ume eta gazteentzat suzko zezena, erraldoiak, haur parkea, bits jaia eta beste hainbat ekintza ere izango dira. Zintzilik emozioen laborategia ere izango da gazteentzat, Ganondon. Nagusiei begira, jubilatuentzat dantzaldia eta berbenak programatu dituzte: Gauargi, Tik tara (saltsa), Haize Arrosa, Erromintxelak eta Mariatxi Rumbo a Tijuana.

Tradizio handiko ekitaldiak ere izango dira: karrozen jaitsiera, Sukalki Eguna, bertsolariak, erromeriak eta Elorrioko kolore eta zapoak, besteak beste. Musika-ri dagokionez, Tatxers, Süne, Nekktar, Against You eta Hofe izango dira oholza gainea, besteak beste.

Baserrien erakusleio

Jaiei izena ematen dien Ferixa Nausikoetako Abere, Nekazari-tza eta Artisau Azoka domekan izango da, Ferixalekuan. Durangaldeko eta Euskal Herri osoko baserritar eta abeltzainen erakusleio izango da Elorrio. Geroa alaitzeko, Elorrioko txistularien kalejira eta Ku-klux fanfarrea herrian zehar ibiliko dira.

2025ko Elkartasun-Plana

ELKARTASUNA!

- ✓ Zuk, proposatu.
- ✓ Guk entzun egingo dizugu.
- ✓ Eta, aukeratu, elkarrekin.

Bezeroa bazara, aukeratu Kausak:

GKE bazara, aurkeztu zure proiektua:

EROSKI
zurekin

"Kartela egitean zeozer berria probatu gura nuen"

SABINA AIZPURU AGIRRE KARTELAREN EGILEA

'JaiTaKolare' izeneko kartelak iragarriko ditu aurtengo Ferixa Nausikoak. Epaimahaiak lanaren "dotorezia" eta "garbitasuna" nabarmendu ditu, besteak beste

Jone Guenetxea ELORRIO

Sabina Aizpuruk bigarren bigarren irabazi du Ferixa Nausietarako kartel lehiaketa. 2018an, berak sorturiko *Barazki Festa* lanak iragarri zituen jaiak. Aizpuruk Diseinu Integralaren ikasketak egin ditu Madrilan (Espainia), eta artisautza garaikideari buruzko masterra amaitu berri du Valentzian (Herrialde Katalanak).

Zelan hartu zenuen albisteak?

Ez nuen espero, inondik inora. Azken momentuan aurkeztu nuen lana, inori ezer esan barik, ez etxekoei ez lagunei. Pozik nago.

Zelan sortu duzu aurtengo kartela?

Eskuz bozeto batzuk egiten hasi

nintzen, nahiko azkar, eta irrendako kaosa gustatu zitzaidan. Gero, ordenagailuan *collage* moduko bat egin nuen, marrazkiak bata bestearen gainean ipinita. Kolore aldetik, ziana, horia eta magenta erabili ditut. **Zergaitik aukeratu dituzu irudi horiek eta ez beste batzuk?**

Egia esan, ez nuen larregi pentsatu. Zeozer berria probatu gura nuen. Bada, elizako elementu batzuk eta herriko beste zenbait hartu ditut, eta nahaste horretatik sortu nuen kartela.

2018ko kartel hartatik eboluzio bat ikusten duzu?

Bai. Ez dakit onerako ala txarrerako izan den, baina ebolu-

zio bat dago, bai. 2018ko kartel hartan ikusitako gauza batzuk orain ez nituzke egingo. Baina ikusten dut nirea den puntu bat. Zati batean, neure burua islatuta ikusten dut. Diseinatzailer lez egindako lanetan beti ikusten dituzu akatsak baina... epe batzuk bete behar dira. Lanak amaitu egin behar dira.

Zelan sentitzen zara herriko kaleetan zure kartela ikustean?

Apur bat arraro, lotsa apur batez. Apur bat lotsatia naiz, baina horretaz bizi gura dut eta hori onartu beharko dut.

Jaietan zer duzu gustuko?

Denetik apur bat. Egunez zein gauez parte hartzen dut. Moztortzea ere oso gogoko dut.



Sabina Aizpuru, 'JaiTaKolare' kartelagaz.

AZKARRETA
- EXCAVACIONES -

T. 946 582 838 - info@azkarreta.com - Ibaikua 2, behea Elorrio
www.azkarreta.com

Elizburu, 46-48
Tel.: 94 682 10 79
ELORRIO (Bizkaia)

ALBAÑILERIA
KURUTZONDO s.l.

TXOKOLAT
DARRETAIK, DENONTZATI

BERRIOTXOA KALEA, 3
Tel.: 946 584 367

AROTZERIA OROKORREAN

Aratz Salazar Bilbao
Tel.: 647 21 07 88 - arotxin@gmail.com
ELORRIO Bizkaia

ESCAAYOLAS
POSADA "TXIBO"

Klaudio Gallastegi, 4 - Tel.: 639 40 57 44
fe28265@telefonica.net

Elorri
Nizeto Urkizu 10
Elorrio

Instagram: @okindegjelorri
Facebook: Elorri Kafetegia Okindegia
632 632 509

Tatxers, Süne, Hofe eta Mugi Panderoa Elorrion

Egitarau oparoa prestatu dute irailaren 5etik 15era ospatuko dituzten Ferixa Nausikoetarako. Askotariko doinuak jorratzen dituzten taldeak arituko dira bertan

Maialen Zuazubiskar ELORRIO

Musikazaleek badute non aukeratu Elorriko Ferixa Nausikoetan; izan ere, deneriko doinuak egongo dira entzungai egunotan bertan. Gaur, adibidez, txosnaguneko irekiera Bixkor txaranga-gaz egingo dute, eta, ondoren, Nekktar, Against You eta Hofe taldeen kontzertuak egongo dira bertan. Bihar, zapatua, 19:00etan, Gaurgi taldearen eskutik erromeria egongo da plazan, eta gauerditik aurrera DJak txosnagunean. Bestalde, Ferixa egunean, Ku-Klux fanfarreak giro-tuko ditu herriko kaleak eta azoka gunea, eta 19:30ean Haize Arroza taldeak kontzertua eman-gu du plazan.

Astelehenean, irailak 8, kua-drillen eguna ospatuko dute. 21:00etan, Mugi Panderoa talde eibartarraren eskutik erromeria egongo da txosnagunean. 23:30ean DJ Bull arituko da plazan.

DENERIKO DOINUAK EGONGO DIRA ENTZUNGAI EGUNOTAN ELORRIKO FERIXA NAUSIKOETAN

Ferixa Nausikoetako bigarren asteburuan ere musika doinuak nagusi izango dira Elorrion. Irailaren 11n, egunean, Edu Zardoyak kontzertua emango du txosnagunean, eta hurrengo egunean Tatxers eta Süne taldeen kontzertuak egongo dira plazan, txosnaguneak antolatuta. Zapatuan, 18:00etan hasita, Disko Sound 4 arituko da plazan, arratsaldea girotzen. Eta behin suzko zezena amaituta, 23:00etan, DJ Delkok & DJ Sierritxek ipiniko dute musika. Txosnagunean ere DJ gaua ospatuko dute. Gauerditik aurrera, Natrixx + Kifi Boy, Lamikiz eta Sierritx arituko dira.



Tatxers. @TATXERS



Süne. @PEIOZAMAA

Autocares Mallabia

Murua Torre, 2G blokea, behea
48200 DURANGO - Bizkaia
Tlf. 94 620 19 76 / Fax. 94 620 23 48
www.autocaresmallabia.com
info@autocaresmallabia.com

MUGIKORTASUN URRIKO
PERTSONENTZAKO
IBILGAILU EGOKITUA

Calderería EZAGUN Galdaragintza

Forjaketa artistikoa
Enpresen mantentze lanak
Lanak herdoilgai zean
Errementaritzaren oro har

Oldor Berriozabalbertia Pab 10
Elorrio
Tel.: 946 584 547

ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net

Urkilan

Urkizuaran, 39
ELORRIO
Tel.: 946 820 237
Mug.: 617 636 889
urkilan@urkilan.net

eroan

DURANGALDEKO EDUKIONTZI ZERBITZUA

94 682 03 90

contenedores **eroan** s.l.

Lekeriketa Auzoa, s/n - Apartado 88
48230 - Tel.: 946 820 390
eroan@eroan.es

Guria Nino

Guria ninon, gure sukaldaritza tradizionala finkatuz gainera, laster sukaldaritza italiarrekiko plater benetazkoak eta gure etxean egindako pizzak dastatu ahal izango dituzu. Horrez gainera, gure tratu harbilaz eta familiarrez gozatu ahalko dituzu.

Ibaikua, z/g. ELORRIO / BIZKAIA
Tel.: 94 623 17 95

UNAI GARAY

ITURGINTZA • BEROGINTZA • GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

"Sukalkien kalitatea egundokoa izaten da"

ALBERTO AGIRRE ETA LUIS MARIN ITURRIZORO ELKARTEEN BATERAGUNEKO KIDEAK

Lapiko guztietako burruntzalia dira, 18 urte daramatzate eta Sukalki Eguneko antolaketa lanetan. Aurten ere logistikan ibiliko da Agirre; epaimahaian, Marin

Ekaitz Herrera ELORRIO

Sukalki eguneko saltsan ikusiko zaituztegu aurten ere?

Alberto Agirre: Ez dut behin ere sukalkirik kozinatu jaietan! Kuadrillan, bai, kozinatu izan dut, baina ez Ferixa Nausikoetan.

Luis Marin: Nik, oster, hiru bider parte hartu dut sukalkien txapelketan. Baina Iturrizoro elkarte kide naizenetik, orain 17 urtetik hona, ez dut sukalkirik egin. Nire lanetarikoa bat epaimahaikoentzat, antolatzaileentzat eta jubilatuentzat bazkaria egitea da.

Beraz, lehiatu ez arren, eskubete lan izango duzue antolakuntzan.

A.A.: 08:00etan hasten gara izen-emateekin eta kuadrillei



Alberto Agirre eta Luis Marin, Pitxar elkartearen aurrealdean.

mahaiak, aulkiak, zabor-poltsak, ardoa banatzen. Kozina-lanak direla, dastatzeak direla, 14:45erako lan guztiak amaitzen ahalegintzen gara, gero denok behar den moduan bazkaltzeko. Epaimahaiko kideen artean Leioako ostalaritza eskolako irakasleak egoten dira. Horrez gainera, Luisek ere esku hartzen du epaimahaian.

Hara! Orduan, zuretzat galdera, Luis: zer behar du sukalki on batek?

L.M.: Puntuazio taula bat izaten dugu. Bertan, zaporea, gatz-puntua, berdura eta okela-mota balaratzen ditugu. Adibidez, masailak ez ditugu onartzen. Izan ere, horretarako dira sukalkiak, bigarren mailakotzat jotzen ziren okelei irtenbidea emateko. Garai bateko Circulo jatetxeko kideek ere hori azpimarratzen zuten, lepoaldea eta era horretakoak kozinatu behar zirela. Azken finean, okela gogorra ondo egitea da erronka.

Jaiak ezin dira ulertu sukalkirik barik.

A.A.: Oso ohitura errotoa da. Lehen, Bakiotik ere etortzen zen jendea. Beste batzuek esan izan digute ez dagoela Elorrikoaren

moduko lehiaketarik. Gaur egun lapiko gutxiago aurkezten dela? Izan daiteke, lehen kuadrilla berak hiru bat prestatzen zituen eta. Orain, lapiko bakarra aurkezten da eta kuadrillek beste jaki batzuekin osatzen dute menua. Sukalkien kalitatea egundokoa izaten da eta 1.400 bat herritar batzen garela kontuan hartu behar da.

L.M.: Gainera, egun borobila izaten da. Egun horretan karrozak egoten dira, mozorroak. Jaia egiten jarraitzen dugu.

Egoten da pikerik?

L.M.: Bai! Handiak, gainera. Leñiz-Miota aldekoak indartsu dabiltza eta Gazetakoek ere primerako sukalkiak egiten dituzte. Pike polita izaten da, gero disfrutatuko duten egun bategaitik lehiatzen dira eta elkarte gastronomikoetako zein auzoetako kuadrillak.

Sukalkitik harago, zelan ospatuko dituzue jaiak?

L.M.: Ni ez naiz etxeratzen! (barrez) Urarka kaleko erromeriara joaten gara, baita Bikale ingurura ere.

A.A.: Ni idi probetara ere joaten naiz. Feria egunean ere antolakuntzan laguntzen egoten naiz.

PATXI ARAMBERRI

HARATEGIA URDAITEGIA

Berriotxo, 37 - Tel.: 94 682 02 86
Anduetxeta, 18 - Tel.: 94 682 01 43
ELORRIO

XELAI Taberna

HANBURGESAK · PIZZAK
RAZIOAK · ENTZALADAK

ESKAERA ERESERBAK

94.655.02.66
Nizeto Urkizu, 37-39
48230 ELORRIO

www.xelaitaberna.eus

**HITZEGIN, HITZEKIN;
EGIN ETA EGIN ATZO!
GAUR ETA BIHAR
TXINTXIRRI**

San Pio 3 Elorrio · Tel.: 946 582 261 · elorrio@ikastola.eus
elorrikoikastola.eus

**ELORRIXON BIZI,
ELORRIXON EROSI.
DENOK IRABAZI!!!**

Ondo pasa jaietan!

· ELORRIOKO MERKATARIEN ELKARTEA ·

ecolaundry

Argiñeta hiribidea, 4, ELORRIO

ecolaundry.es

ZUBIERTZ TABERNA

Errazioak, ogitartekoak,
hanburgesak, sandwichak ...

Erreserbak eta etxera
eramateko eskariak egiteko
telefonoa: 682 809 796

Erreka kalea 23, behe

IZURTZAKO JAIK 2025



Ondo pasa jaietan!



Tel.: 946 813 548
www.izurtza.net

IZURTZAKO JAIK 2025

IRAILAK 5

19:00 Triki-poteoa gasolindegian hasita.

20:00 Txupinazoa.

IRAILAK 6

12:30 Patatak errioxar erara lehiaketa.

14:30 Platerak aurkeztea.

15:00 Herri bazkaria.

18:00 Bingoa.

IRAILAK 7

SANTA AGEDA EGUNA

10:00 Kalejira JAIZALEgaz.

12:00 MENDIGAIN DANTZA TALDEA.

12:45 Umeentzako poneyak.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Bazkalosteko bertso saioa.
BERTSOLARIAK: Oihana Bartra, Aissa Intxausti eta Xabat Galletebeitia

18:00 Lotxo Taldea.

IRAILAK 8

ERDOITZA EGUNA

10:00 Kalejira JAIZALEgaz.

16:00 Haur parkea, plazan.

IRAILAK 12

GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

17:30etik aurrera: - Artisautza azoka. - Enkajerak, Grafiti Live Larraka, Eko Karrusela, Arku-tiroa eta food truck Kemekomo & Gertu taberna. - Antzerki pildorak: Gertu kolektibaren 'Begi prest' eta Asier Kidamen 'Hurbileko Magia'.

18:00 Harri Orri Ar txapelketa, Torneos Durangok antolatuta.

18:30 Zirkua: Cia Batacazo, 'Volar' ikuskizunagaz.

20:00 Antzerkia: Los Judas de la Impro, 'Impro Show' lanagaz.

21:00 Cumbia kontzertua: LFD Mambo Express.

IRAILAK 13

SANTO TOMAS EGUNA

10:00 Kalejira JAIZALEgaz.

GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

11:00etik aurrera: - Artisautza Azoka - Enkajerak, Grafiti Live Larraka, Eko Karrusela, Arku-tiroa eta food truck Kemekomo & Gertu taberna. - Antzerki pildorak: Gertu kolektibaren 'Begi prest' eta Asier Kidamen 'Hurbileko Magia'.

11:00 Klase irekia: Nanu del Gesso: 'Estiramientos'.

12:00 Kriskitin Dantza Taldearen saioa.

12:30 Antzerkia: Lorena Arangoaren 'Milagros & Valentina' ikuskizuna.

13:30etik aurrera, DJ KSKA eta piknik txapelketa.

19:00 Patata tortilla txapelketa frontoian.

20:30 Tortillak aurkeztea.

21:30 Herri afaria.

22:30 Xaibor.



GERTUFEST.

IRAILAK 14

11:30 Arraza libreko ardi txakur erakustaldia. (frontoi atzeko belardian)

13:30 Igel txapelketa, plazan.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

17:30 Mus txapelka, Argintxun. Gehienez 16 bikote. 3 jokotara.

17:30 Partxis txapelketa, plazan. Gehienez 16 bikote. 2 fitxara.



LUCIA MERUELO

Irailak 7 Dantza saioa
Mendigain dantza taldeak saioa egingo du Santa Agedan.
Santa Agedan, 12:00etan



BILKETA ZERBITZUA
INSTALAZIOEN ERAISTE LANAK
TROKELÉN SUNTSITZE LANAK

Elizalde auzoa, 47 - 48213 IZURTZA
Tel.: 946 818 979 - Mov.: 639 438 197
info@recytro.net - www.recytro.net



**Urkioil gasolindegia
ibilgailuetarako
aukerarik onena.**

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

Azkonizaga
Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK
LIKOREAK • ESNEA
URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkai)
Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58



Irailaren 12an eta 13an Gertufest jaialdia ospatuko dute Santo Tomas parkean. LUCIA MERUELO

Gertufest eta ardi txakur erakustaldia jaien barruan

Izurtzako jaiak gaur hasiko dituzte, arratsaldeko trikipoteoagaz eta ondorengo txupinazoagaz. Santa Agedako jaia eta bertsoa saioa, Santo Tomaseko Gertufest, Lotxoren erromeria eta ardi txakurren erakustaldia dira jaietako osagai batzuk

Joseba Derteano IZURTZA

Izurtzako jaiak gaur arratsaldeko txupinazoagaz hasiko dira. Aurtengo nobedade bat jaietako azken egunean izango da, irailaren 14an. Udalak eta Artxate elkarteak arraza libreko ardi txakur erakustaldia antolatuko dute. Pilotalekuaren atzeko belardian izango da ekimena, 11:30ean.

Domekan Santa Agenda ermitaren inguruan izango da jaieguna. Mendigain dantza taldeak saioa egingo du. Arratsaldean, Oihana Bartra, Aissa Intxausti eta Xabat Gallettebeitia bertso-lariak bertso saioa egingo dute. Lotxo taldearen erromeriagaz errematatuko dute jaieguna.

Astelehenean, Erdoitzako Egunean, goizean kalejira egongo da Jaizale taldeagaz, eta arratsaldean haurrentzako parkea, plazan.

Gertufest

Jaietako bigarren asteburuko ekimen asko Santo Tomas parkean izango dira. Gertufest Batzordeak, udalak eta Korrala Sormen Guneak elkarlanean, artea, kultura eta festa uztartzen dituen Gertufest jaialdiaren 4.

aldia egingo dute parkean, irailaren 12an eta 13an. Egun bietan artisautza azoka egingo dute. Postu hauek izango dira bertan: Birak, Torontile, Amalur, Art-Izar, Zunart, Kukupraka, Maimai Sorkuntza, Sutil eta Eskuarte.

Urtero legez, kale ikuskizun askogaz gozatzeko aukera egongo da. Gertu kolektiboak antzeztan laburrak egingo ditu eta Asier Kidamek magia ikuskizuna egingo du. Los Judas de la Impro konpainiak eta Lorena Arangoak ere euren antzeztan plazaratuko dituzte, besteak beste.

Musikak ere izango du bere tokia, LFD Mambo Express cumbia kontzertuagaz eta DJ KS-KA-ren musikagaz.

Harri Orri Ar txapelketa

Gertufesten aurtengo nobedade bat irailaren 12ko Harri Orri Ar esku joko txapelketa da. Torneos Durango taldeak antolatuko du eta irabazleak 100 euro jasoko ditu. Edonork parte hartu dezake eta ez dago aurretiaz izena eman beharrik, antolatzaileek zehaztu dutenez. Bestalde, irailaren 13an piknik txapelketa egingo dute.



GALDAKETA ETA SIDERURGIARAKO PRODUKTUAK

Foseco Española, S.A.
Elizalde azuza, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73
115 Posta Kubxa - 48200 Durango (Bizkaia)

VESUVIUS

arbere

Aterik ate gasoleo banaketa

946 20 40 45
630 05 89 10
www.arbere.com



BASERRIKO OGIA



Berrizetxe baserria
Elizalde, 32 - Izurtza
Tel: 94 681 78 21

HERRIKO TABERNA

Tel.: 946 808 908
Elizalde auzoa, 20
IZURTZA

URDAIAZPIKOA
SALAMANCAKO TXORIZOA
SOLOMO IBERIKOA
SALTXITXOIA
GAZTA
ERRAZIOAK



GARATE

Mañondo
Baserria, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza





'Hiru'-ren aurkezpena, Haizearen Orrazian. MIKEL ZUBILLAGA

"Inplikaziorik gabe ez dago emaitza txukun bat lortzerik"

CLAUDIA ERENTXUN DANTZARIA ETA KRESALA DANTZA TALDEKO KIDEA

DANTZA Kresala dantza taldearen 'Hiru' ikuskizunak dantza eta Eduardo Chillida batzen ditu, besteak beste; Elorrioko Arriolan taularatuko dute, irailaren 12an

Aritz Maldonado ELORRIO

Kresala dantza talde gipuzkoarra 60ko hamarkadatik hona dabil martxan. Euskal dantza tradizionalak eta garaikideagoak uztartu ditu urteotan. Claudia Erentxun dantzariak (Donostia, 2000) 2012 inguruan bat egin zuen taldeagaz, eta ordutik *Aztarnak*, *Hitaz orhoit* eta *Oteizaren kaxa beltza* lanean parte hartu du, besteak beste.

Zelako harrera izan du 'Hiru'-k iaz estreinatu zenutenetik?

Iazko abuztuaren lean estreinatu genuen, Donostiako Musika Hamabostaldian, Haizearen Orrazian. Horrelako kokapen batean egin ahal izateak berezi egin zuen emanaldia. Gau ona egin zigun

"GEROZ ETA DANTZA GEHIAGO IKUSTEN DA PLAZETAN ETA HAIZEAREN ORRAZIA BEZALAKO TOKIETAN"

gainera, eta harrera ere oso ona izan zen; beraz, oso pozik geratu ginen estreinaldiarekin. Geroztik, urte osoan zehar egin dugu bira, beste obra batzuekin tartekatuta, eta publikoaren aldetik harrera beroa jaso dugu. Jaso ditugun iruzkinak oso positiboak izan dira eta gu ere pozik gaude. Eduardo Chillidari keinu egiten diozue lanean, eta hori nabaria izan zen Haizearen Orraziko emanaldian. Unibertso hori beste leku batzuetara moldatzea erronka handia izan da?

Horrelako estreinaldi baten ondoren antzerako emaitzak lortzea erronka handia izan da, baina, egia esan, beste herri edo hiri batzuetara eraman dugunean, ikuskizunak eta Chillidaren obrak unibertsaltasun handia dutela ikusi dugu, eta udan, adibidez, Polonian izan gara; plazetan eta antzokietan taularatu dugu eta bikain funtzionatu du; azken batean, gune baikoitzean modu desberdinean bizi da ikuskizuna. Lortu dugu eta pozik gaude emaitzarekin. **Non batzen dira eskultura eta dantza? Nondik dator Kresalaren eta Chillidaren arteko lotura?**

Galdera honi, agian, Fausti Aranzabal koreografo eta zuzendariak erantzun beharko lioke (barrez). Nire iritziz, Chillidak eskulturen bitartez sortzen zuten antzeko espazioa sortzen dugu dantzariok eszenan gauden bitartean, eta *Hiru* obrako koreografiako pausoetan geometriaren erabilera ere nabarmentzen dugu; bai Chillidak eta bai historian zehar beste hainbat sortzailek erabiltzen dituzten kode garaikide horiek erabiltzen ditugu guk ere dantzan zehar. Agian, horrela lehenengoz entzunda ez da erraz ulertuko, baina *Hiru* ikusterakoan antzematen dira keinuak eta espazioaren erabilera berezi hori. **Ez ulertzeko beldur hori jendea dantza ikuskizunetara joateko oztopoa dela uste duzu?**

Baliteke. Kresala dantza taldearen kasuan, gauza desberdinak egiten ditugu, tradizioa hartzen dugu baina beste buelta bat ematen diogu, eta izan daiteke, hasieran, edo kartela ikustean, ikusleak ez ulertzea oso ondo zer ikusiko duen; euskal dantza tradizionalen ikuskizun bat edo beste zerbait ikusiko duen duda hori izan dezakete. Baina, behin etorrita eta ikusita, erantzuna oso ona izaten da.

Hainbeste urtean lanean egotearen fruitua izango da jendea joatea.

Bai, esango nuke egin dugun lanari esker lortu dugula dugun izena, eta jendeak badaki dantza

tradizionaletik harago goazela eta gauza bereziak eta desberdinak egiten ditugula.

Hori ezinbestekoa izango zen 60 urteko ibilbideari eusteko.

Prozesuak beste modu batera egite horrek desberdintzen gaituela esango nuke. Gure zuzendari artistikoak, obra bati ekiten dionean, musika edo poesia asko arakatzen ditu, adibidez, baita beste iturri batzuk ere, beste garai edo herrialde batzuetako dantzak ere, eta hori guztia gureru ekartzen du gero; horrela sortzen ditu hain bereziak diren eta hain polit geratzen diren lanak. Bai lantaldeak eta bai nik asko miresten dugu gure zuzendari artistikoak duen ahalmen hori. Horrek erakargarri egiten du lana, eta txukun geratzen da, gainera.

Dantza tradizionalak garaikideago egitea gakoetariko bat izan daiteke hainbeste urtez irateko?

Bai. Horixe da erronkarik nagusietariko bat, eta egungo gizartea interpretatzen jakitea ere bai, honek jarrai dezan. Hiru alor oso garrantzitsu ikusten ditut Kresalak aurrera egiteko. Batetik, egiten dugunaz gozatzea; oso garrantzitsua. Gero, inplikazioa eskatzen duela; inplikaziorik gabe ez dago emaitzarik. Eta lehen aipatu dudana bezala, taldekideok honi guztiari diogun errespetua. Ondo pasatzera joaten gara entsegu eta emanaldietara, noski, ez dugu inoiz fokua galtzen, eta egundoko errespetua diogu, esan bezala, guk egiten dugunari eta zuzendari artistikoek hartzen duten lanari. Errespetuz hartzen duzunean, emaitzak txukunagoak dira eta horri heltzen diogu guk.

Geroago eta dantza emanaldi gehiago antolatzen da, kalean zein aretoetan. Garai onak dira dantzarentzat?

Baietz esango nuke. Gaur egun erakundeek dantzaren etorkizuna babesten dutela nabaritu dugu. Horrez gainera, dantzaren berrinterpretazio bat dagoela ere esango nuke, eta dantza kalera ateratzen hasi da, jaialdien zein kaleko emanaldien bitartez; gaur egun ez da bakarrik aretoetan eta ordainpeko formatuan egiten. Geroz eta gehiago ikusten da plazetan eta toki berezietan, eta horrek esan nahi du badagoela aurrerapauso bat horretan.

"KOREOGRAFIKO PAUSOETAN GEOMETRIAREN ERABILERA NABARMENTZEN DA"

Zapatuan ekingo diote Eleizetan berriari

MUSIKA Irailaren 6tik 21era bitartean, sei kontzertu emango dituzte Zornotzako beste horrenbeste gunetan; Olatz Salvador musikariak egingo du lehenengo ikuskizuna, Etxanoko Andra Mari elizan; doako autobus zerbitzua eskainiko dute emanaldietarako

A. M. ZORNOTZA

Irailagaz batera, ganbera musikak Zornotzan urtero duen hitzordua heldu da. Izan ere, Eleizetan zikloak hamarkada bi baino gehiago daramatza Zornotzako eliza eta ermitak agertoki bihurtzen. "Eleizetan 2025 ez da musika jaialdi bat bakarrik. Ziklo honek udalerrria beste era batera ezagutzera gonbidatzen gaitu, historia duten gunek eta musika proposamen desberdinak uztartuz, kalitatezko eta doako formatu hurbilaren alde eginez", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Olatz Salvadorrek egingo du aurtengo lehenengo emanaldia, zapatuan, 20:00etan, Etxanoko Andra Mari elizan; biharamunean, Julian Añoverrek eta Javier Castañok osatzen duten In Media Res Duo bikotearen txanda izango da, Dudeako San Migel elizan, 19:00etan. Ondoren etorriko dira Kare, Halos, Iñaki Palacios eta Eresma artisten kontzertuak.



Olatz Salvador. ANE BERRIOTXOA

2002an sortu zenetik, Eleizetan kultur zikloak hiru oinarri ditu: kalitate artistikoa, kamera formatua izatea eta kontzertuari izaera ematen dion kokalekua. Zornotzako Udalak antolatzen du Eleizetan zikloa, urtero le-

gez, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz. Herritarrei sei emanaldietara joatea errazteko, antolatzaileek doako autobus zerbitzua antolatu dute; autobusa San Migel kaletik irtengo dela jakinarazi dute.



Izaskun Ellakuriaga. GEREDIAGA

Gerediagak Izaskun Ellakuriaga agurtuko du zapatuan

AGURRA Agur ekitaldia Gerediagako Foru Zelaian egingo dute, Abadiñon, goizeko hamaiketan

A. M. ABADIÑO

Gerediaga elkarteko kideek Izaskun Ellakuriaga Bustinza kazetari iurretarra agurtuko dute. Agur ekitaldia Abadiñoko Gerediagako Foru Zelaian egingo dute, 11:00-12:30 bitartean. Ellakuriaga uztaillean zendu zen, 53 urte gaz, eta Gerediaga elkarteko komunikazio arduraduna izan zen urte askoan. Durango-ko Azokaren komunikazio eta marketin arduraduna ere izan zen, eta Bizkaia Irratian urteak eman zituen goizeko programan esatari. Bestalde, ANBOTOren aurrekaria izan zen Eraz aldiz-

karian ere aritu zen hainbat urtez erredaktore eta zuzendari lanetan, eta ondoren komunikazio esparru batzuetan ibili zen. Lekukom komunikazio agentzia sortu zuen Marijo Deogracias kazetariagaz batera. Kazetari sena izateaz gainera, euskaltzale amorratua zen, nekaezina eta langilea, eta horrela gogoratuko dute, beraz, zapatuan egingo duten ekitaldian. "Eskuzabala, ausarta eta nekaezina zen, oztopo denen gainetik pasioa eta lana arlo guztietan erakusten zituenetarikoa", azpimarratu dute Gerediagakoek.



GAI LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

Isilaraziak XXIV

Ziur nago uda honetan hamaika argazki atera dituzula. Kanpora joan zein bertan geratu, mugikorra edo kamera eskuan dugula, argazkiak egiten eta egiten ibiltzen gara. Batzuetan besteekin partekatzen ditugu, eta beste batzuetan guretzat gordetzen ditugu. Nolanahi ere, argazkiak gure egunerokoaren parte bihurtu dira, eta udan are gehiago. Abuztuaren 19an, gainera, argazkigintzaren nazioarteko eguna ospatzen da.

Hori buruan, galdera bat etorri zait: zein da inoiz ikusi duzun argazkirik zirraragarriena? Ez ederrena —azken finean hori oso subjektiboa baita—, baizik eta zeinek utzi zaituen ahozabalik, gertatzen ari denari buruz gehiago jakiteko grinarekin? Nik argi daukat erantzuna: Lee Millerren argazki bat da. Ezagutzen ez baduzue, deskribatuko dizuet.

Miller bera ageri da argazkian, biluzik bainuontzi baten barruan (gorputza ez zaio ikusten, ordea). Bainuontziaren ondoan bota lokaztu pare bat ikus daiteke,

eta aulki baten gainean bere arropak. Mahaitxo batean emakume biluzi baten eskultura dago, eta bainuontziaren ertzean jabearren argazki bat, marko zuri batean. Irudian ageri dena Adolf Hitler bera da. Bai, Millerrek Hitlerrek erabiltzen zuen bainuontzian sartu eta argazkia egin zuen, diktadoreak bere buruaz beste egin zuen egun berean.

Lee Miller Bigarren Mundu Gerran fotokazetari aritu zen. Lau emakumek bakarrik egin zuten lan hori,

"LEE MILLER FOTOKAZETARI ARITU ZEN BIGARREN MUNDU GERRAN. LAU EMAKUMEK BAKARRIK EGIN ZUTEN LAN HORI"

eta Millerren argazkiak izan ziren kontzentrazio-esparruetako errealitatea hobetoen islatu zutenetakoak. Emakumeen egoeraz arduratu zen bereziki, eta bere argazkiek garai hartan bizi izan zuten egoera gordina erakusten dute.

Deskribatu dizuedan argazkiarekin ez zuen probokazioa bakarrik bilatu. Beste zerbait adierazi nahi zuen: lubakietan eta kontzentrazio-esparruetan ikusitako doluaren eta zentzugabekeriaren arduradun nagusiaren tokia hartzea, elementu intimo eta arrunt baten bidez, bainuontzian. Bota zikinak kenduta, gorputza garbitzen ari da: garai berri bat hasten da, zikinkeria atzean geratzen da.

Bota zikin horiek, zoritxarrez, gaur egun beste batek daramatza soinean.

Ez da askotan hainbeste esan irudi bakar batekin. Ez dadila ahanzturan erori emakume handi honen lana, mesedez.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 5

ABADIÑO Jaiak
Donien Atxa jasotzea, 19:00etan.
Talde Batuak dantza taldearen ekitaldia, 19:15ean.
Ugasio txapelketa, 19:30ean.
Lokaletik AT Fest V: Korroxion, Lionels, Sugoi, Alerta eta Orihen, 19:45ean.
Paella eta tortilla lehiaketetarako izen ematea, 20:00etan.
Makro disko-jaiak: Sound 4, 20:00etan.
Eusko Labeldun hanburbesak Hazi Fundazioaren eskutik, 20:30ean.
Muntsaratz auzoan.

ATXONDO Antzerkia
'Welcome&Sorry' (Ganso&Cia).
Plazan, 20:00etan.

DURANGO Erakusketa
'Ikusiezina baina ahaztezina. Lurrinaren eta kosmetikaren historia'.
Arte eta Historia Museoa, irailaren 21ean.

DURANGO Erakusketa
Durangaldeko Artista Elkartearen erakusketa kolektiboa.
Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 14ra bitartean.

ZAPATUA 6

ABADIÑO Jaiak
Mahaien banaketa, 10:00etan.
Puzgarriak eta tailerrak, 12:00etan.
Herri kirolak: Izadi Agirre, Haritz Aranguren, Malen Barrenetxea eta Mikel Agirre, 13:00etan.
Paellen aurkezpena eta sari banaketa, 14:00etan.
Puzgarriak, 16:00etan.
J.M. Atlantida, 16:30ean.
Apar festa, 18:00etan.
Tortillen aurkezpena eta sari banaketa, 19:30ean.
Akerbeltz taldea, 22:00etan.
DJ Mo, 01:00etan.
Muntsaratz auzoan.

ABADIÑO Erromeria
Aikopeko, AIKO taldearen (Argi Zameza, Aitor Furundarena eta Sabin Bikandi) proiektu berriaren aurkezpen erromeria.
Urkiola Hotelaren aldameneko plazan, 13:00etan (Urkiola).

ELORRIO Bisita gidatua
'La villa' bisita. Izena ematea: 94 682 0164 edo 688 77 62 70 / turismoa@elorrrio.eus).
Elorrion, 11:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Arrituganara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 09:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
Olatz Salvador. Eleizetanen barruan.
Etxanoko Andra Mari elizan, 20:00etan.

DOMEKA 7

ABADIÑO Jaiak
Bigarren eskuko azoka, 11:00etan.
Tailerrak eta zurezko jokoak, 12:00etan.
'Ardatzak' familia ikuskizuna (Zirkozaurre), 16:30ean.
Muntsaratz auzoan.

ABADIÑO Jaiak
Donien Atxa jasotzea, 18:00etan.
Dantzariak, 18:30ean. Ondoren, pintxoak eta Sustrai Colina eta Txaber Altube bertsolariak.
Andra Mari auzoan.

IURRETA Bizikleta irteera
Oletara eta Kruzetara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 09:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
In Media Res Duo (Julian Añover eta Javier Castaño). Eleizetanen barruan.
Dudeako San Miguel elizan, 19:00etan.

ASTELEHENA 8

ABADIÑO Jaiak
Meza, 12:00etan. Gero, pintxoak.
Andra Mari auzoan.

MARTITZENA 9

DURANGO Lehiaketa
Durango uria XXV. Pintura lehiaketara lanak aurkezteko epea zabaldu du Durangaldeko Artista Elkarteak. Gaia librea da eta 18 urtetik gorakoek parte hartu dezakete. Irabazleak 700 euroko

saria lortuko du, 2.ak 500 eurokoa eta 3.ak 300 eurokoa. Durangon bizi diren edo elkarteko kide diren artisten artean 300 euroko hiru sari banatuko dituzte antolatzaileek. Urrian erakusketa egingo dute.
Arte eta Historia Museoa, irailaren 28ra bitartean.

DURANGO Deialdia
Durango Fashion Gauerako kastinga.
Andra Mari elizpean, 17:00etatik 19:00etara.

EGUENA 11

DURANGO Tailerra
'Belle Époque-tik Art Décora: Hizkuntza perfumatuaren jatorria (1890–1940)' usaimen tailerra. Izena eman behar da.
Arte eta Historia Museoa, 18:00etatik 19:30era.



GARI

ZALDIBAR Kontzertua
Aurtun 30 urte bete dira Garik bakarkako ibilbideari ekin zionetik. Ibilbide hori ospatzeko hainbat kontzertu egingo ditu abeslariak, horietako bat Zaldibarren.
Irailak 13, zapatua, Zaldia plazan, 21:30ean.

BARIKUA 12

ABADIÑO Bertsoak
Bertso afaria Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariekin.
Urkiola hotelean, 21:00etan (Urkiola).

ELORRIO Dantza
'Hiru' ikuskizuna (Kresala dantza konpainia).
Arriola antzokian, 20:00etan.

ZAPATUA 13

DURANGO Bisita gidatua
'Arte al descubierto- Escultura pública'. Durangoko eskultura-ondarea ezagutzeko ibilbidea. (Izen ematea: Turismo Bulegoa / 94 603 39 38 / turismo@durango.eus).
Turismo Bulegoan, 10:30ean.

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Expediente Warren. El último grito
Barikua 5: 17:45, 20:30.
Zapatua 6: 18:00, 21:00.
Domeka 7: 16:45, 19:30.
Astelena 8: 17:30, 20:15.
Martitzena 9: 17:30, 20:15.
Eguaztena 10: 19:00.

Romería
Barikua 5: 18:00, 20:30.
Zapatua 6: 19:00, 21:30.
Domeka 7: 19:30.
Astelena 8: 17:45, 20:15.
Martitzena 9: 17:45, 20:15.
Eguaztena 10: 19:00.

Weapons
Barikua 5: 20:30.
Zapatua 6: 19:00.
Domeka 7: 16:45.
Astelena 8: 20:15.
Martitzena 9: 20:15.
Eguaztena 10: 19:00.

Tiburón. 50 aniversario
Barikua 5: 18:00.
Zapatua 6: 21:30.
Domeka 7: 20:00.
Astelena 8: 17:45.
Martitzena 9: 17:45.

Campamento garra de oso
Zapatua 6: 17:00.
Domeka 7: 18:00.

Super Elfinak
Zapatua 6: 17:00.
Domeka 7: 16:15.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Sin cobertura
Barikua 5: 20:00.
Zapatua 6: 20:00.
Domeka 7: 20:00.
Astelena 8: 20:15.

SuperElfinak
Zapatua 6: 17:00.
Domeka 7: 17:00.

DURANGO Bisita gidatua
'Durango historian zehar'. (Izen ematea: Turismo Bulegoa / 94 603 39 38 / turismo@durango.eus).
Turismo Bulegoan, 12:00etan.

IZURTZA Bisita gidatua
'Exaburutarren dorrea'. Gerediagak eta Urkiola Landa Garapenak antolatuta. (Izen ematea: 94 681 80 66 /gerediaga@gerediaga.eus).
Izurtza, 16:30ean.

ZORNOTZA Kontzertua
Cuarteto Kare. Eleizetanen barruan.
Bernagoitiako San Migel elizan, 20:00etan.

ZORNOTZA Mendi ibilbidea
Boroako V. Mendi Martxa. (Izen ematea: 08:15-08:45).
Kamiseten banaketa eta haimaketakoa, 12:30ean.
Bazkaria, 15:00etan.
Bolo txapelketa, 19:00etan.
Boroan, 09:00etan.



Gorka Marzan, Abadiño, plazaan, erronkarako erabili duen bizikleta eskuetan duela.



ESFORTZUAREN EMAITZA

Ilusio batek mugitu du Marzan erronka egitera: Strava Euskal Herriaren mapako profila marraztea. Ondoko irudian ikusten da emaitza.



Bidean hamaika txoko ezagutu du. Irudian Baionako Errobi ibaiaren ondoan dago.

"Bizikletan ibiltzearen plazerari gure aberria batzea sentsazio polita da"

ERRONKA Gorka Marzan Altubek (Abadiño, 1975) beretzat berezia izan den erronka bat egiteko erabili ditu udako oporretako egun batzuk. Lau etapatan banatuta, Euskal Herriari itzulia eman dio, zazpi probintzien perimetroko bideetatik

Joseba Derteano ABADIÑO

Marzanek 43 ordu eta 43 minutu behar izan ditu ibilbideko 1.060 kilometroak egiteko. Azkenean, Euskal Herriaren irudia osatzea lortu du Strava aplikazioan. Horretxek eman dio pozik handiena.

Zelan sortu zitzaizun ideia?

Mallorca 312 Iraupen Luzeko proban ibili naiz urte askoan, erratz-lanetan, Getxoko beste lagun batzuekin batera, eta proba horretan Mallorcari itzulia ematen zaio kanpoaldetik. Gero, pandemia sasoian, ez zen egin martxarik edo antzerakorik, eta Euskal Herriari kanpoaldetik itzulia ematea okurritu zitzaien Getxoko lagunei, Mallorcan egiten den antzera. Eguen batean irten ziren, baina hurrengo egunean lan egin behar nuenez, ez nintzen joan. Hala ere, zapatu goizean bidera irten nien, Arabar-Errioxako herri baten ingu-

ruan. Handik Getxora zihoazen, itzulia amaitzeko, eta eurekin joan nintzen. Amaitu zutenean, egindako ibilbidearen profila ikusi nuen Strava aplikazioan, Euskal Herriaren irudia. Oso polita iruditu zitzaidan. Harrezkero, marmar hori nerabilen buruan. Aurten animatu naiz. 50 urte egin ditut eta ospatzeko modu polita zela pentsatu nuen. **Erronka berezia izan da zuretzat.** Bai, Euskal Herria maite dudalako. Kirol erronka bat baino gehiago izan da. Bizikletan ibiltzearen plazerari gure aberria batzea sentsazio polita da. Kan-

"EZ NINDOAN MISERIARIK PASATZERA. TABERNAN GERATZEAN DENBORA HARTZEN NUEN"

poan bizi den lagun min bat bisitan datorrenean ematen diozun besarkadaren antzerakoa da. Mila kilometro horiek beste toki batera joateko balira, ez lidakete berdin balioko. Etxera heldu nintzenean sentibera nengoen, eta oso pozik.

Logistika aldetik zelan moldatu zara?

Ondo moldatu naiz. Getxoko lagunak utzitako trackak erabili ditut. Haiek iraupen luzeko probak egitera ohituta daude eta hiru egunean ia geratu barik aritu ziren, aldiro pare bat ordu lo eginda. Ni ez nindoan miseriarik pasatzera. Beraz, lau egunean egin nuen, etapa bakoitzaren amaieran lo egiteko etxea hartuta. Gozatu egin gura nuen. Normalean, goizaldeko bostetan jaikitzen nintzen eta arratsaldeko seiak ingururako etxean nengoen. Bidean jatera geratzen nintzen, eta neure denbora har-

tzen nuen, presarik barik. Tabernan zeudenekin berbetan geratzen nintzen. Batzuek nondik nentorren galdetzen zidaten. Esaterako, Mauleko bati ibilbidea Abadiñon hasi nuela esaten banion, harrituta geratzen zen, jakina.

Fisikoki ondo heldu zara?

Bai. Ohituta nago takada batean kilometro asko egitera, eta banuen konfiantza. Aipatu dudan moduan, Mallorca 312 probak 300 kilometrotik gora ditu eta askotan egin dut. Gainera, nire filosofia hau izan da: "Beti ahalik eta erosoan joatea". Berdin zidan zenbat denboratan egin. Helburu bakarra heltzea zen.

Zein izan da igo duzun mendaterik gogorrena?

Izarbe. Atzeko aldetik 13 kilometro ditu eta pendizen portzentajea ez da % 10etik jaisten. Baina, horrela planifikatuta, etapa baten hasieran egin nuen, eta 60. kilometrorako tontorrean nengoen. Beraz, eramangarriagoa izan zen.

Toki berri asko ezagutuko zenuen. Zein zonalde edo toki gustatu zaizu bereziki?

Izarbe bera. Igo nuen aldetik ez nuen ezagutzen, eta gustatu zi-

tzaidan. Gero, Arabar-Errioxa hemendik urrun geratzen zait bizikletan irteten naizenean, eta haraino behearaino ailegatu barik nengoen. Tuter ingurua eta hango lautadak ere politak iruditu zitzaizkidan. Egia esanda, bere osotasunean hartuta oso esperientzia polita izan da eta kilometro guztietan gozatu dut. **Hau ez da Euskal Herria oinarri hartuta egin duzun lehenengo erronka.**

Ez, 2018an Euskal Herriko zazpi hiriburuak batu nituen, Oskar Markinezegaz eta Zigor Zuburrutigaz. Orduan hirurok ibili ginen. 27 ordu behar izan genituen. Hura ere esperientzia polita izan zen.

Zein izan da zure lehenengo proba luzea?

Orain hamar bat urte izan zen, 2015ean. Alabak urte eta erdi zuenean, meningitis gaixotasuna izan zuen. Banekien abadiñar batzuk 24 orduz Miotari bueltak ematen arituak zirela eta neure buruari promesa bat egin nion: "Alaba gaixotasunetik ondo irteten bada, erronka horixe egingo dut". Alaba osatu eta denbora batera, gustu handiz ibili nintzen 24 orduz jarraian Miotako itzuliak egiten.

Zein izango da hurrengo erronka? Ez dakit. Hamaika ideia dut buruan, baina denbora behar da! Lehenengo batean, lagun batek esan zidan Bilbotik Algecirase-ra joan zirela, eta dagoeneko begiratu dut tracka. Donejakue bidea ere egin gura nuke.

"ERRONKAKO MILA KILOMETROAK BESTE MODU BATERA EGIN BANITU EZ ZIDAN BERDIN BALIOKO"



lazko edizioko irteera. LUCIA MERUELO

Mañaritik Atxetara, irailaren 19an eta 20an

MENDI LASTERKETAK Mañaritik Atxetara probak bigarren edizioa beteko du irailaren 19an eta 20an. Zapatuko lasterketak plater nagusia izango diren arren, beste hainbat ekintza ere antolatu dute; tartean, Eñaut Elorrietak elizan emango duen musika kontzertua

J.D. MAÑARIA

Iazko arrakastaren ondoren, Mañaritik Atxetara probak bigarren edizioa beteko du irailaren 19an eta 20an. Aurten ere askotariko lasterketak izango dira plater nagusia, baina ez bakarria, Eñaut Elorrietaren

musika kontzertuagaz eta bestelako ekimenekin gozatzeko aukera ere egongo delako egitarau zabalaren barruan.

Mañaria mendi korrikalarien topagune bihurtuko da irailaren 20an. 43 kilometroko lasterketa luzeagaz hasiko dute

EÑAUT ELORRIETAK KONTZERTUA EMANGO DU ELIZAN; SARRERA DOAKOA DA LEKUAK BETE ARTE

eguna, 08:00etan. Korrikalariak 3.900 metroko desnibel positiboari aurre egingo diote, eta Artatxagane, Leungane, Astxiki, Urkiolamendi eta Untzillatx tontorretatik igaroko dira. 09:00etan, 22 kilometroko proba hasiko da. Ibilbide eraman-garriagoa du, baina gogorra da hala ere, 2.000 metroko desnibel positiboa du eta.

Hurrengo hasiko den lasterketa nobedadea da: Untzillaitz Zuzen. Parte hartzaileak Mañaritik Untzillatx gainera igoko dira zuzenean, ibilbide labur bezain gogorrari jarraituta: 750 metroko desnibel positiboa 2,9 kilometrotan. Mendia beste modu batera gozatu gura dutenek 09:30ean hasiko den mendi martxagaz dute horretarako aukera. Azkenik, txikien artean zaletasuna pizteko, umeen lasterketak antolatu dituzte. 16:00etan hasiko dira.

Bestelako ekimenak ere izango dira. Adibidez, 19:00etan, Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa egongo da Mañarian.

Eñaut Elorrietaren kontzertua

Irailaren 19an, Eñaut Elorrietak kontzertua emango du elizan. Ateosteko Bira proiektuaren barruan, musikari gernikarra kontzertu intimo eta bereziak ematen dabil elizarik eliza, eta Mañarian izango du hurrengo geltokia. Sarrera doakoa da, jesarlekuak bete arte. Egun berean, serigrafia tailerra egongo da Torontileren eskutik.

San Fausto zesta-punta txapelketa bihar hasiko da

ZESTA-PUNTA 40. aldia ospatzeko, zesta-punta partiduetak eta "hainbat sorpresa" antolatu dituzte

J.D. DURANGO

San Fausto zesta-punta txapelketak 40. aldia beteko du aurten. Data borobil hori ospatzeko, Durango Jai Alai Klubak hainbat ekimen antolatu du zapatarako, lehenengo jardunaldiagaz bat eginda. Ezkurdi plazan, aire librean, animatzen den orok jaurtiketak egin ahal izango ditu, pilotaren abiadura neurtuta. Horrez gainera, "hainbat joko eta sorpresa izango da, bertaratzen diren txikiek eta ez hain txikiek ere gozatu ahal izango dituztenak", antolatzaileek ohar batean aurreratu dutenez. Txapelketa zapaturo jokatu da, 18:00etan, eta domeketan 10:30ean. Hiru kategoria ditu: neskak, gazteak eta 25 urtez azpikoak. Guztira, 18 kirol taldek parte hartuko dute, gehienak Hego Euskal Herrikoak, baina Bartzelonako, Ipar Euskal Herriko, Frantziako (Paue eta Hossegor) eta Mexiko Hiriko pilotariak ere aurkeztu dira.



JOKALDIA

ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA TXIRRINDULARITZA

Zale fidelak

Egunotan Euskal Herritik ibili da Espainiako Itzulia eta bide bazterrak jendez gainezka ikustean, txirrindularitzak beste ezein kirolek baino zalego fidelagoa duen pentsamenduan berresten naiz. Tropela ez baita beti etxe ondotik igarotzen. Batzuetan kotxea hartu eta kilometro asko egin beharra dago, bakarrik, lagunekin nahiz familian. Tokira joan, aparkatu, lasterketa ikusteko txokoren bat bilatu... Eurria ari badu euritan, eta bero handia badago, bada... apurka egosten. Eta mugimendu hori guztia, momentu labur baterako. Konturatu orduko tropela igaro da zure aurretik eta ezkutatuta da hurrengo bihurgunean.

Ordainetan jasotzen denerako sakrifizio handiegia dela uste baduzu, begiratu zaleen aurpegira tropela joan den une horretan, eta ez dela horrela konturatu zara. Aurpegi alaiak ikusiko dituzu. Hurrengoan ere hantxe izango direla adierazten duten aurpegiak dira. Eta tartean umeak badaude, nekez ahaztuko dute be-

"SASKIBALOIAK, FUTBOLAK... IKUSKIZUN LUZEAGOA ESKAINIKO DUTE, BAINA EZ HOBEA, INONDIK INORA"

"BIZIKLETAK ALDATUKO DIRA, EDO TAKTIKAK, BAINA BARRUKO ZIRRARAK HOR JARRAITUKO DU"

rehun ziklista ziztu-bizian metro gutxira igarotzen ikusteak eragiten duen zirrara. Eta ikuskizuna oraindino handiagoa da ziklistak mendatean gora bizikletan makur-makur eginda ikustean. Euren sufrimenduaren parekoa da zaleen gozamena. Ni munduko txapelketa askotan egon naiz, eta, nonhai nagoela ere, ikurrinak ikusi ditut beti.

Futbolak, saskibaloiak eta beste kirol askok ikuskizun luzeagoa eskainiko dute, baina ez hobea, inondik inora. Horietako askotan sarrera ordaindu behar da gainera, baina ziklismoa doako ikuskizuna da. Txirrindularitzak zale fidelak ditu, eurei esker gabilta gu errepedean, eta errekonozimendua merezi dute. Txirrindularitza maite dugunok harro egoteko moduan gaude dugun afizioarekin. Seguru nago hemendik urte askotara ere horrela izango dela. Bizikletak aldatuko dira, baita lehiatzeko modua eta taktika ere, baina barruan eragiten duen zirrarak hor jarraituko du.

GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 5, BARIKUA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 6, ZAPATUA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 7, DOMEKA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 8, ASTELEHENA
09:00-09:00
Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 9, MARTITZENA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 10, EGUAZTENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 11, EGUENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



ABADIÑO
Asier Etxebarria
Abuztuaren 31n Asier Etxebarriak urteak egin zituen. Zoragarri pasa izana espero dugu.



IURRETA
Natali Cebrian
Abuztuaren 30ean Natali Cebrianen urtegunen izen zana. Zorionak eta besarkada bat etxeko danen partez!



IURRETA
Amair
Zorijonak, poxpola! Jarraitu gure bizitzak pozten. Zorijonak familia guztiaren partez!



IURRETA
Manex
Irailaren 4an Manexek 8 urte egin zituen. Txokolatada eder batekin ospatu genuen lagun eta familia artean. Zorijonak, Manex!

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

Irailak 6, larunbata.

Ingeles klaseak

675 48 68 05
inglesendurango.es

Google-en bilaketa batek gure kalitatea bermatzen du: 102 iritzirik bain
★★★★★

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

1#

EHUN ZALDI TROSTAN

Ainhoa Urien Elkar

2#

MAURIZIA, BIZIMINAREN HOTSA

Garbiko Ubeda - Garluk Ikastolen Elkarte

3#

AMORANTE FRANTSESA

Miren Agur Meabe Susa

4#

MAITASUN KAPITALA

Karmele Jaio Elkar

5#

IRAGAN ATERGABEA

Julen Belamuno Elkar

INMOBILIARIAK



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA 3 logela. Garajea eta trastelekua. **282.000 €**-tik aurrera.

AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €**-tik aurrera.

ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**

AUKERA

Zaldibar: Erdialdean. 3 logela eta komuna. berritzatua. Tarstelekua eta despentsa. **C.E.E.=E 128.000 €**

San Inazio: Garajea. 11.000

ETXEBIZITZAK SALGAI

San Roke: 85 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta eskegitokia. ganbara. 2 garaje. **C.E.E=D 282.000 €**

Askatasun Etorbidea: 105 m2. Erdialdean. 3 logela eta 2 komun. Berritzatua. Despentsa-trastelekua. **C.E.E=E 267.000 €**

Durango: Erdi-banata. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 637.000 €**

Kirikiño: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. BERRIA. Jantzia. **C.E:E=G 180.000 €**

Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**

San Inazio: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. 2 terraza. Eguzkitsua. Garajea. Piztina. **C.E.E=E 265.000 €.**

Baserria, Zornotza: Berritzatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E:E=F**

Izurtza: Baserria. BERRIZTATZEKO: Lursailarekin. **C.E.E=G 198.000 €.**

Abadiño: Gaztelua. Salgai 866 m2-ko lursail laua. **35.000 €.**

Muntsaratz: Baserria. 670 m2. Familiabakarrekua. 500 m2-ko lursailarekin. **C.E.E=F 525.000 €**

LOKALAK SALGAI

Juan Mari Altuna: 100 m2. Egokitua. Kearentzako irteera. Alokairuan.

Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokitua. **160.000 €**

Durango: 100 m2-ko lokala alde zaharrean. Egokituta. Taberna. **125.000 €.**

Durango: Bulegoa. Erdialdean. Lehenengo solairua. **650 €.**

Iurreta: Bixente Kapamaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €**

Astepe: 40 m2-ko lokala. Egokituta. **70.000 €.**

Maspe: 150 m2-ko lokala. **112.000 €.**

Askatasun Etorbidea. 60 m2-ko lokala. Egokituta. Kearentzako irteera. **125.000 € .**

Alluitz: 70 m2-ko lokala. Egokituta. Erakuslehiorekin. **145.000 €.**



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berritzatzeko. **125.000 €**

Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berritzatzeko.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALEIAK SALGAI

Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berritzatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berritzatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO
Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E.E. 85.000 €

DURANGO: **Lariz jauregia:** 48 m2. Egongela, sukaldea, 2 logela, despentsa eta komuna. Santa Ana plazatik gertu. Erreforma integrala behar du. 2026. urteko abutzura arte alokairuan dago. Ezin hobe inbertitzeko.



E.E.E: G. 175.000 €

DURANGO: **Juan de Iziar:** 59,4 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 4 logela eta komuna dutxarekin. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea-mendebaldea) Zonalde lasaia. 8 m2-ko trastelekua.



C.E.E: F. 179.000 €

DURANGO: **Askatasun Etorbidea:** 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna dutxarekin. Berrikuntzak behar ditu. Lehioak oraintsu aldatuta. Berantolaketa bat egiteko aukera. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (iparralde) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatuta.



C.E.E: G. 182.000 €

DURANGO: **Antso Estegiz:** 42,50 m2. Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna dutxarekin. Egoera ezin hobean. Beheko solairuan etxe erdiak kanpora ematen du, iparralde. Zerbitzuguneak eta zonalde berdez inguratuta. 6 m2-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: E. 360.000 €

DURANGO: **Franzisko Ibarra:** 107 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kapora ematen du. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta ganbara.



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

BERRIAK DURANGO

Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

DURANGO

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 €/ E.E.Z=E**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

Oialde kalea: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **274.000 €/ E.E.Z=B**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitze baserria lursailarekin. **350.000 €**

GAHA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia. **28.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Alluitz: Garaje itxia. **75 € / hilean.** Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 € /hil.** **IURRETAN SALGAI**

Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €** Alokagai: **1.680 € /hilean.**



LAU-HORTZA

MARTA CALVO
LARRALDE

Aurkezpena

Lehenengo zutabe honetan aurkezteko premia sortu zait, baina ez dakit esaten nor naizen, eta diodanaren bitartez ezagutuko nauzue hobeto, gehiegi agian. Exhibizionismo puntu bat du honek.

Nire etxean sartzen ari zarete-la sentitzen dut, arraroa da. Pijaman topatuko nauzue ziurrenik, arropa zaharrak erabiltzen ditut lotarako. Ez dezazuen sorpresarik eraman.

Etxera bazatozte kafe bero bat hartzera gonbidatuko zaituztet, bidezko merkataritzakoa, ongi etorriak zaretela esan eta gustura zaudetenean, atea itxi eta manifestu bat sinatzera behartuko zaituztet.

Lasai, ez naiz oso manifestu zalea. Bainak gustatzen zaizkit, jatekoak eta esatekoak.

Zutabe bat idaztea gauzak esateko aukera bat bada, baina beldurak mingaina jango didan beldur nabil. Beraz, gauzak esateko esfortzua egingo dut eta azalean ez gelditzeko saiakera egin ere.

Gizarte bazterketaz arituko naiz, lehenengo pertsonan, singularrean eta pluralean. Gure gizarte baztertzailaz arituko naiz.

Gauzak ez direlako horrelakoak. Gauzak horrela egiten ditugulako dira diren modukoak.

Miseriak biluzarazteak lotsak eta haserreak ekarri ditzake baina, elkarbanatuz gero, eraman-garriagoak izaten dira. Agian, haietaz, gutaz, barre egitea lortuko dugu eta, zergatik ez, zerbait aldatzea lortu ere.

AKUILUA

"Jostun taldeak asko lagundu dit euskaraz egiteko"

ALICIA FONDADO GALARRAGA BERBALAGUN TALDEKO JOSTUNA

Elorrioko jostun taldeko kide eta euskara ikaslea da. Lagun talde batek euskaraz jarduteko baliatzen du josteko zaletasuna, herriko Berbalagun taldearen ekimenez

Aitziber Basauri ELORRIO

Elorrioko Iturri kultur etxeak aterpea eskaintzen du jostintza eta euskara praktikatzeko, as-telehenetan eta martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara. Orain urte bi sortu zen jostintza eta euskara uztartzen dituen taldea, Alicia Fondadok (Durango, 1965) bultzatuta. Baldintza bi baino ez daude taldera batzeko: jostea eta euskaraz aritzea.

Noiz hasi zinen josten?

Betidanik josi dut. Kakorrazt-lanak eta puntua egin ditut. Etxean ama, izeba, amama... josten ikusi ikasi nuen, baina patronaje formakuntza ere jaso dut. Zortzi urtegaraz egin nuen lehenengo poltsa, eskuz; tortolosak edo tabak gordetzeko. Eta neba jaio zenean harentzako jaka txiki bi egin nituen. 13 urte izango nituen, eta halakoak egin nituen (barrez). Askotan eramaten ditut orratzak poltsan, josteko eta kakorrazt-lanak egiteko. Boligrafoak, arkatzak... gordetzeko estutxeak ere egin izan ditut. Dena dela, asko aldatu dira garaia.

Egitea baino errazagoa da erostea?

Bai! Garai batean, amak egiten zizkigun arropak, jertseak... Lana eta oihal denda pila zegoen Durangon. Jostea derrigorra zen,



"ZORTZI URTEGARAZ EGIN NUEN NEURE LEHEN POLTSA, ESKUZ. TORTOLASAK EDO TABAK GORDETZEKO"

eguneroko zeozer. Gaur egun, zaletasuna da. Errazagoa eta merkeagoa da arropa dendan erostea. Oihalak eta artilea garestiagoak dira. Dena dela, orain zaletasun handia dago josteko eta kakorrazt-lanak egiteko.

Zure zaletasuna partekatze helburuagaz sortu zenuen jostenen taldea Elorrioren?

Bai. Taldetxo bat sortzeko go-go nuen, ikasten jarraitzeko, egindako lanak partekatze, zalantzak argitzeko, eta abarrrerako. Euskaltegian hasiberria nintzen, eta Iker irakasleak komentatu zidan Berbalagun talde bat sortu nezakeela. Oso ideia ona iruditu zitzaidan; gainera, bide batez euskaraz egiteko aukera izango nuen. Gaur egun, 18 bat lagun batzen gara.

Zein da taldearen helburua?

Elkartzea eta jostea. Gauza berriak ikasten joatea, erronka txikiak betetzen joatea. Eta euskaraz egitea, jakina. Niri asko lagundu dit euskaraz egiteko. Arantza irakaslea egoten da gugaz, zuzentzeko.

Beraz, euskaraz berba egiteko aterpe bihurtu da taldea.

Jakina! Gainera, lotsa galdu dut, lagunartean nagoelako, lasai. Taldean lotsarik ez dago ez euskaraz aritzeko ezta jostintza edo kakorrazt-lanak egiteko ere.

Zer ekarpen egiten dizu jostea?

Bete egiten nau. Neure buruari ipintzen dizkiodan erronkatxoak betetzea pozgarria da. Jostintza oso aberasgarria dela uste dut.

Horrela jaio zen GALA proiektua.

Bai. GALA Galarragarrei egindako omenaldia izan zen (ama, izeba, amama...). Ordu asko egiten nuen lanean, eta utzi nuenean denbora asko nuen neuretzat. Ordenagailua utzi eta josteko makina hartu nuen. Azoketan saltzen hasi nintzen. Oso polita izan zen. Orain, apur bat baztertuta dut. Auskalo berreskuratuko dudana.



anboto
kide

Hileroko zozketa bereziak.
Poltsikorako abantailak.
Deskontuak Anbotoko zerbitzuetan.

anboto
kide

Deitu
945 816 558
telefonora

